



Economistas
sin Fronteras

MgE dosierrak
60. zk., 2026ko negua

GARAPENERAKO FINANTZIAZIOA: PROMESA HUTSAK ETA EGITURAZKO PREMIAK FFD4REN ONDOREN





AURKIBIDEA

- 4 AURKEZPENA: Garapenerako finantziakzioa: promesa hutsak eta egiturazko premiak FfD4ren ondoren**
Pablo Martínez Osés
La Mundial kolektiboa
M.ª Luisa Gil Payno
Mugarik gabeko Ekonomialariak
- 7 FfD4 – AURRERAPEN ESANGURATSURIK GABEKO UKITU ESTETIKOA**
Collins Liko
Politika ekonomikoko koordinatzailea Red-DESCen
- 13 Erreparazio-justizian arreta jartzeko ordua da, gero eta handiagoa den finantza-inperialismoari aurre egiteko**
Wangari Kinoti
Action Aid
- 18 Garapena eta justizia klimatikoa finantzatzeko, egiturazko ikuspegi bat behar da**
Katie Tobin
Women's Environment and Development Organization (WEDO)
- 27 Etorkizun jasangarria finantzatzeko erronkak**
Myriam Vander Stichele
Akademiko elkartua, Transnational Institute
- 31 Zorra, zergak eta finantziakzio klimatikoa**
Nicola Scherer
Observatori del Deute en la Globalització-ko (ODG) ikerlaria
- 37 Krisian dagoen multilateralismotik lurralde-ekintzara: FfD4k utzi zuena**
Arantza Acha
UN Etxea-ko zuzendaria
- 41 GOMENDATUTAKO LIBURUA: Oxfam, nazioarteko lankidetzak justizia globalerako, 2025**
José Medina Mateos
La Mundial kolektiboa
- 44 GEHIAGO JAKITEKO**

Economistas sin Fronteras erakundeak zure laguntza behar du. Uste baduzu gure EsF txostenak edo orokorrean gure jarduerak gizarte-erabilgarritasuna duela, laguniezaguzu gure lana mantentzen. Erreferentziatzeko GKEa izan nahi dugu bideko ekonomia bilatzeko orduan, gizarte- eta ekonomia eragileen sareko lana sustatu eta elkarriketa errazten laguntzeaz gain. Bakarrik gizarte-partaidetza zabalaren lorpenekin lortu ahal izango baitugu bideko ekonomia. Nahi duzun ekarpen ekonomikoa egin dezakezu:

Ondorengo esteka honetan
inprimakia beteta:

[Egin dohaintza orain](#)

Edo BIZUM: erabiltzearen bidez:



01895

Fundazioaren kodea
Economistas sin Fronteras

Ikus daiteke nola egin dohaintza bizum bidez hemen
<https://ecosfron.org/unete/dona-con-bizum/>

Gure erakundeko bazkide izan eta Economistas sin Fronteras erakundearekin aldizka lagundu nahi baduzu, gure webgunean dagoen inprimakia osatuta egin dezakezu:

[Egin zaitez Bazkide](#)

Edo 91 549 72 79 telefono-zenbakira dei dezakezu • Informazio guztia hurrengo webgune honetan: <https://ecosfron.org/unete/>

Irabazi-asmorik gabeko erakundeetarako Espainiako legediak pertsona fisikoek egindako ekarpen eta dohaintzei aldeko tratua fiskala ematen die, PFEZaren kuota kenkarirako aukera baitago.

ARGITALPEN KONTSEILUA

Luis Enrique Alonso
María Eugenia Callejón
Marta de la Cuesta
Beatriz Fernández Olit
María Luisa Gil Payno
Juan A. Gimeno
Jorge Malfeito Gaviro
José Ángel Moreno

ARGITALPEN TALDEA

María Eugenia Callejón
Javier Esteban
Luisa Gil Payno
Juan A. Gimeno
José Ángel Moreno

Ale honen koordinazioa:


Pablo Martínez Osés
La Mundial kolektiboa
M.^a Luisa Gil Payno
Mugarik gabeko Ekonomialariak

ISSN 2603-848X Dossieres EsF

Azaleko irudia: © Eurodad ASBL

Maketazioa: LA FACTORÍA DE EDICIONES, SL

Dossieres EsF Mugarik gabeko Ekonomialariak
erakundearen hiru hileroko argitalpen digital bat da.



MgE Dosierrak, Economistas sin Fronteras erakundeak egina (<http://www.ecosfron.org/publicaciones/>), Creative Commons Aitortu-EzKomertziala-LanEratorririkGabe 4.0 Internazionala lizentzia baten pean banatzen da (<http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/4.0/>).

Baimenduta dago lanaren kopiak egitea, osorik edo partzialki, bai eta haren jendaurreko jakinarazpena ere, betiere ez bada helburu komertzialarekin egiten eta jatorrizko lanaren egilea nor den aitortzen bada. Ez da baimentzen lan eratorririk sortzea.

Mugarik gabeko Ekonomialariak (MgE) Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakunde (GGKE) bat da, 1997an unibertsitate-esparruan sortua, eta gaur egun ekonomia bidezkoa, solidarioa eta iraunkorra eraiki nahi duten pertsonen osatua; erakundearen lehentasunezko asmoa pobrezia eta desberdintasunak desagerraraztea da.

Mugarik gabeko Ekonomialariak erakundearen uste dugu garapen-eredu berri bat behar dela, ekonomia gizakiaren zerbitzura jar dadin, eta ez, gaur egun gertatzen den bezala, milioika pertsona ekonomiaren zerbitzura egon daitezen.

Gure helburua da gizarte-arloan erantzukizuna hartuko duten herritarrak sortzen laguntzea, modu aktiboan jardun dezaten eta gizartea eraldatzeko premiarekiko konpromisoa har dezaten.

Erreferentziazko GKE bat izan nahi dugu bidezko ekonomiaren bilaketan, eta gizarte-eta ekonomia-eragileen artean elkarriketa errazten eta sareko lana sustatzen lagundu. Izan ere, gizartearen parte-hartze zabal baten bidez soilik lortu ahal izango dugu bidezko ekonomia bat.

Gure bazkideen ekarpenak funtsezkoak dira iraupen luzeko proiektuak planifikatu eta egin ahal izateko.

Mugarik gabeko Ekonomialariak Euskadi
EKONOPOL
Harrobi Plaza, 4,
48003 Bilbo, Bizkaia
Tel.: 722 371 633
ecosfron.euskadi@ecosfron.org

Mugarik gabeko Ekonomialariak
c/ Gaztambide, 50
(entrada por el local de SETEM)
28015 Madrid
Tel.: 91 549 72 79
ecosfron@ecosfron.org

GARAPENERAKO FINANTZIAZIOA: PROMESA HUTSAK ETA EGITURAZKO PREMIAK FFD4REN ONDOREN

Pablo Martínez Osés

La Mundial kolektiboa

M.^a Luisa Gil Payno

Mugarik gabeko Ekonomialariak

MgE dosierren 60. ale honetan, garapenerako nazioarteko finantziazioari buruzko gaiak aztertu nahi genituen. Duela sei hilabete pasatxo, Garapenerako Finantziazioari buruzko Nazioarteko IV. Biltzarra egin zen Sevillan¹ (FfD4). Munduko herrialde guztiak bildu zituen, NBERen babespean, egungo finantziazio-arrakalak eragindako arazoak konpontzeko. Biltzarraren egunetan albisteetan zerbait agertu zen arren, herritar askok ez dute munduko foroetan eztabaidatzen diren finantza-gai garrantzitsuetarako sarbide errazik, nahiz eta bertan jorratzen diren arazoei eragina izan egunerokoan.

FfD4n gertatutakoaren azterketa egiten duten ekarpen bikainak biltzea lortu dugu, bileraren aurreko testuingurua eta erronkak aurkeztuz, baita Sevillako Konpromisoa deituriko azken adierazpenerako bidea eman zuten negoziazioekin gertatutakoa ere². Ekarpene horiek, oro har, ongi laburbiltzen dute zein diren arazo nagusiak, zer konponbide eman diren, behar baino eskasagoak orokorrean, eta zein diren aldaketa benetan egokiak gauzatzea eragozten duten oztopo eta muga nagusiak.

Garapenerako nazioarteko finantziazioari buruzko gaiak askotarikoak eta konplexuak dira; izan ere, elkarren artean oso desberdinak izanik sarritan oso bateragarriak ez diren interesak dituzten eragile publiko eta pribatuen arteko botere-harremanen mordoilo bat dago oinarrian. Gainera, gai jakin batzuei heldzea dakar (zorra, fiskalitatea edo finantziazio klimatikoa, besteak beste), eta horrekin batera datoz hizkuntza teknikoa eta ideiak iluntzen dituen nolabaiteko sofistikazio kontzeptuala.

Dosier hau osatzen duten ekarpenek lagundu egiten dute prozesuarekiko hurbiltasuna eta justizia ekonomiko eta finantzario globalarekiko konpromiso

handia duten adituen ikuspegitik jorratutako gai nagusiak laburbiltzen eta haiei arreta jartzen. Ez dira teknizismo ugari dituen eta eztabaidagaiak modu independentean aztertzen dituen espezializazio tematikotik pentsatutako ekarpenak; aitzitik, ekarpen horiek guztiek adierazten dute zer lotura estu dauden zorraren arazoan, gai fiskalen edo zerbitzu publikoak behar bezainbeste finantzatzeko zailtasunen artean, adibideren bat jartzearen.

Oro har, testuinguruari eta hark bereizgarri dituen arazoei buruzko ikuspegia ematen digute. Myriam Vander Stichelek (Transnational Institute) garapena finantzatzeko aurrekontu publiko urrien eta irabazi pribatu ugarien arteko kontrastea azpimarratzen du, eta esaten du arazoa ez dela diru falta, baizik eta nola lortzen den hori behar bezala bideratzea. Afrikar ikuspegitik, Wangari Kinotik (Action Aid) erakusten du Europako kapitalismo inperialak gauzatutako afrikar baliabideen pilaketak eta kolonizazioak indarrean dirauela gaur egun zenbait mekanismoren bidez, hala nola kanpo-zorra, moneta-dominazioa, lege kanpoko finantza-fluxuak eta finantzarizazioa. Kalkuluen arabera, Afrikak 88.600 milioi dolar estatubatuar (USD) galtzen ditu urtero kapital-ihesagatik. Nicola Schererrek (Observatori del Deute en la Globalització) gogorarazten digu gutxienez 48 herrialdek, guztira 3.300 milioi pertsonak, ez dutela behar bezainbeste inbertitzen hezkuntzan edo osasunean zorraren ondorioz, finantza-arkitekturan ezarritako arauak baldintzatuta; arau horien arabera, zorra ordaindu behar da lehenik, eta hori egin arte ez da inbertituko ez hezkuntzan, ez osasunean, ezta egokitzapen klimatikoan ere.

Finantziazio-arrakala handi horrek, herrialde pobretuenei eragiteaz gain, historikoki desparekotasunezkoak izan diren herrialde arteko botere-harremanak jartzen ditu agerian. Harreman horiek estraktibista eta pilatzaile moduan erakusten ditu Wangari Kinotik, edo harrapaketa korporatiboko

1. <https://financing.desa.un.org/es/ffd4>

2. <https://docs.un.org/es/A/CONF.227/2025/L.1>

Hala ere, ekarpen guztiek adierazten dituzte etorkizunean lan egiteko bideak, eta askotariko inspirazioak jasotzen dituzte oztopoak gainditzeko zein beharrezkoak diren eraldaketak lortzeko. Nicola Schererrek erakusten du zein diren martxan dauden aliantza nagusiak, bai herrialdeen esparruan, afrikarrekin, herrialde pobretuenekin eta uharteetakoekin, bai joko-arauetan aldaketak lortzeko lanean jarraituko duten gizarte-erakundeen sareen esparruan. Arantza Achak gogorarazten digu, halaber, gizarte-dentsitate horrek erakusten duela, krisi demokratikoa eta diskurtso autoritario eta supremazisten gorakada dauden garai hauetan, gizarte zibilak jarraitzen duela izaten guztion ongiaren eta arau partekatuen defendatzaile nagusia. Wangari Kinotik Afrikako Batasunaren erreparazioei³ buruzko adierazpena aurkezten digu, gaur egungo desparekotasun politiko eta ekonomikoei aurre egiteko esparru moduan, komunitate-alderdia berreskuratuz eta ekonomiaren helburua birdefinituz, kapitalismo neoliberalak garaitzeko.

Collins Likok, bestalde, esaten du munduko finantza-arkitektura guztiz berrabiarazi behar dela, gobernu-erakundeak, -politikak eta -egiturak eraldatzeko, eta, horrela, unean uneko errealitateei erantzuneko dien helburu batera egokitu daitezen, pertsonen giza eskubideak eta planeta oinarri izanik. Justizia klimatiko eta ekonomikoaren egiturazko ikuspegi feministatik, Katie Tobinek premiazkotzat jotzen du gure makroekonomia gidatzen duten arauen erreforma integrala egitea, gure ekoizpen- eta kontsumo-sistemak barne, baliabide-erazketan eta hazkunde mugagabearen oinarritutako sistema batetik zaintzak eta gizarte-babesa lehenesten dituen sistema batera igartzeko. Ohartarazten digu, estraktibismo-mota bat beste batez ordeztu beharrean, trantsizio energetikoaren ikuspegi bidezko batek, ingurumen- eta ekonomia-justizia zabalago batekin, sektore batzuetan desinbertitzea eskatuko lukeela, beste sektore batzuetan inbertitzeko, eta, era horretara, gure planetaren mugak errespetatzeko eta baliabide-banaketarako ereduak deskolonizatzeko aukera izango litzatekeela.

Arantza Achak argi ikusten du multilateralismoak, garrantzitsua izaten jarraitzekotan, berriz konektatu

beharduela lurraldeekin eta egunerokoan demokraziari eusten dioten eragileekin. Wangari Kinotik dio erreparazioek hainbat elementu barne hartzen dituztela: leheneratzea, konpentsatzea eta amaitzea, eta gehiegikeria gehiago egingo ez direla ziurtatzeko bermeak. Myriam Vander Stichelek gogorarazten du beharrezkoa dela zorra guztiz berregituratzea, baina, gaur egun bideragarria ez denez, oso baliagarriak izan daitezkeen urrats txikiak ere susta ditzakegula, hala nola zorra barkatzeak epe luzera onurak utziko dituela ulertaraztea eta trantsizio ekosozialei kalte egiten dieten erregulazio laxoak identifikatzea.

Azken batean, gaurkotasan handiko analisi-panorama iradokitzailea aurkezten du dosierak, gatazken multzoa hobeto ulertzeko gakoak ematen baititu, eta, hain justu, gatazka horiek azaltzen dituzte planeta osoko bizitzak —bizitza guztiak— hobetzeko aukera emango duten trantsizio bidezko, inklusibo eta eraginkorrak lortzeko nahikoa eta egokia den finantziarioa izateko dauden zailtasunak. Bizi dugun krisi anitzen aro hau gainditzeko, ia betebeharra da tresna kontzeptualak izatea eta hegoalde globalerako ikuspegiak zer eskaintzen diguten jakitea.

Dosierrean, gainera, bildumako ohiko bi atalak datoz. Gomendatutako liburuan, Oxfam Intermon erakundearen azken txostena irakurtzea proposatzen digu José Medinak: *Nazioarteko lankidetzak justizia globalerako*. Txostenean, nazioarteko lankidetzak sistema errotik birpentsatzeko beharra azaltzen da, eta zalantzan jartzen dira bai haren oinarri historikoak, bai botere-harreman globalekiko duen lotura. Begirada dekolonial batetik, fokua garapenerako laguntzatik justizia globalerantz aldatzea proposatzen du txostenak, sistemaren egiturazko eraldaketa lortzeko funtsezko eremu politiko gisa kokatuz garapeneraren finantziarioa. Ikuspegi horretatik, lankidetzak ez du zentzurik izango hiru hauetan laguntzen ez badu: desparekotasun historikoak zuzentzen, gobernantza ekonomiko globala demokratizatzen eta garapen-dinamiketan dagoen aztarna koloniala aitortzen.

Bestalde, *Gehiago jakiteko* atalean erreferentzia bibliografikoen eta erreferentziazko webguneen aukeraketa bat dator, jorratutako gaietan sakontzeko interesa duten pertsona guztientzat.

Amaitzeko, eskerrak eman nahiko genizkieke eskuzabaltasunez dosierrean parte hartu duten pertsona guztiei. ■

3. https://ibw21.org/docs/accra-ghana-reparations-summit-2022/accra-ghana-2022-declaracion_espanol.pdf

Collins Liko

Politika ekonomikoko koordinatzailea Red-DESCen²



Iturria: Pool Moncloa/Borja Puig de la Bellacasa.
lamoncloa.gob.es. Lehendakaritza Ministerioa

Sevillan Garapenerako Finantziario buruzko Nazioarteko IV. Biltzarra³ (FfD4) egin zen unean, kinka larrian zeuden zenbait herrialde (hegoalde globalekoak bereziki), zorraren zerbitzuaren zama handitu delako, hazkunde ekonomikoa motela delako eta beren finantza-aldakortasuna areagotu duen krisi klimatiko existentzial bati aurre egin behar dietelako. Red-DESC sareak adierazten duen moduan, historikoki ondare kolonialetan sustraituta dagoen eta harrapaketa korporatiboak gero eta gehiago

baldintzatzen duen munduko finantza-arkitektura baten esparruan egin zen FfD4⁴.

Biltzarraren aurretik ere, korporazio multinazionalen, finantza-erakunde pribatuen, multimilioidunen, nazio aberatsenen eta finantza-erakunde multilateralen onurarako programatutako finantza-sistema baten mende zegoen mundua. Finantza-sistema, hamarkadatan neoliberalismoak gidatua, ez da gai izan hegoalde globalak aurrean dituen erronka gupidagabe eta urgenteei erantzuteko.

Sevillako Konpromisoak, azken dokumentuaren behin-behineko idazkian, 130 ekimen zirriborratzen ditu Sevillako Ekintza Plataformaren bidez⁵ (SPA),

1. Itzulpena: AEIOU Traductores Sooc. Coop. Mad.
2. Red-DESC sareak (Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturaletarako Nazioarteko Sarea) 80 herrialdetako 300 gizarte-mugimendu, giza eskubideen aldeko erakunde eta aktibista biltzen ditu, eta lankidetzan dihardute, behar dugun mundua lortzeko: pertsonen eta planetaren zaintza, elkartasuna eta berdintasuna ardatz hartuta erabakiak hartzen dituen eta ardatz horien bidez ezartzen dituen pertsona guztientzako giza eskubideak bermatzeko oinarriak.
3. Nazio Batuek (2025). *Sevillako Konpromisoa, Azken dokumentua*. <https://financing.desa.un.org/document/ffd4-outcome-booklet-spread>

4. ESCR-Net (2023) *The Intersection of Debt and Corporate Capture*. <https://www.escri-net.org/resources/the-intersection-of-debt-and-corporate-capture/>
5. Garapenerako Finantziario buruzko Nazioarteko Biltzarra (2025). *FfD4 Sevillako Ekintza Plataformaren ekimena*. <https://financing.desa.un.org/sites/default/files/ffd4-documents/2025/FFD4%20SEVILLA%20>

Finantziario publikoa eta garapenerako lankidetzak ofiziala sendotzeko konpromisoak lortu beharrean, Biltzarrak inbertsio pribatu eta konbinatuko tresnak zabaltzearen alde egin zuen argi eta garbi, nahiz eta frogak ugari egon modalitate horiekin eragile pribatuek neurriak kanpoko onura lortzen dutela, eta, aldi berean, arriskuak sozializatzen dituztela.

zorren krisiari heltzeko, garapen jasangarriko inbertsioak katalizatze eta nazioarteko arkitektura ekonomikoa aldatzeko. Alabaina, SPA esparru ez-lotesle eta borondatezkoa da, boluntarioen koalizioan oinarritua, eta merkatuak gidatutako finantziario pribatuko soluzioekiko duen mendekotasunak eragin negatiboa izan lezake eskubideetan oinarritutako soluzioetan eta justizia ardatz duten alternatibetan. Biltzarrean aitortu zen gero eta handiagoak direla iparralde globalaren eta hegoalde globalaren arteko aldeak, eta, aitortu zen, halaber, gero eta arrakala handiagoa dagoela garapen jasangarriko asmoen eta horiek lortzeko behar den finantziarioaren artean. Halere, ez du asmatu arrakala horri aurre egiteko finantza-soluzio zehatzak ematen. Merkataritzari eta Garapenari buruzko Nazio Batuen Konferentziak (UNCTAD, ingelesezko siglak) garapen jasangarria finantzatzeko 2024an egindako txostenean⁶ esaten da munduko arrakala ekonomikoa 2,5-4 bilioi USDren artean dagoela gaur egun.

Finantziario pribatu eta konbinatua: harrapaketa korporatiboan sakonduz

Finantziario publikoa eta garapenerako lankidetzak ofiziala sendotzeko konpromisoak lortu beharrean, Biltzarrak inbertsio pribatu eta konbinatuko tresnak zabaltzearen alde egin zuen argi eta garbi, nahiz eta frogak ugari egon modalitate horiekin eragile pribatuek neurriak kanpoko onura lortzen dutela, eta, aldi berean, arriskuak sozializatzen dituztela. Ikuspegi horiek,

korporazio multinazionalen eta finantza-erakunde pribatuen mende, garapenerako finantziarioaren harrapaketa korporatiboa islatzen dute (eta babesten, are gehiago). Eta gizarte zibilak hura identifikatu zuen FfD4an.

Zorren krisia konponbiderik gabe

Biltzarrak, hasiera batean politikoki esanguratsua zirudien arren, ez zuen soluzio iraunkorrik eman munduko zorren krisirako, baina gero eta sakonagoa da, hazten ari da, eta arriskutsua izan daiteke. Munduko zor publikoa azkar hazten ari da, elkarren artean gurutzatzen ari diren krisi anitzengatik eta ekonomia globalaren jardura motel eta irregularraren ondorioz. 2024an, zor publikoa (gobernaren nazioko eta kanpoko zor orokorra barne) 102 bilioi USDra iritsi zen, 2023an baino 5 bilioi gehiago. Hegoalde globaleko herrialde asko interes-tasa altuei eta dolar indartsuago bati aurre egiten ari dira, eta horrek birfinantziarioa zaildu du. Ondorioz, hainbat herrialde gainzorpetuta daude eta gobernuek baliabide gehiago erabili behar dituzte zorra ordaintzeko oinarritzko zerbitzu publikoetarako baino. Sevillako Konpromisoak dei egiten du zor globalaren egitura bidezkoago baten alde eta garapenerako finantziarioa igo dadin, baina, hala ere, gorabehera asko daude aurrerapenetan. Berregituraketa esanguratsurik eta finantziario-aukera jasangarriak gabe, zor- eta austeritate-zirkulu batean harrapatuta geratzeko arriskuan daude herrialde zaurgarri asko, garapenerako espazio mugatuarekin.

Are gehiago, Biltzarrak soluzio faltsuak sustatu zituen zorren krisirako, hala nola klausula kontingenteak iradoki zituen estatuko, mailegu ofizialeko (klimarekiko erresilientea den zorren klausulak, zor-trukeak edo zorra luzatzeko klausulak), zorren zerbitzua eteteko aukera bermatzeko krisi-, hondamendi- eta nahasmen-garaietan. Egiaz, horiek ez dira gero eta sakonagoa den zorren krisiari aurre egiteko soluzioak; zorra atzeratzen duten aldi baterako neurriak dira, eta, oro har, interesek metatzen jarraitzen dute, kontrakoa zehaztu ezean.

Biltzarrean aitortu zen zorra mundu-mailako erronka bat dela eta oztopo egiten diola garapenari, baina, hala ere, ez zuen asmatu arazoaren alderdi historiko eta legez kontrakoari heltzen, zor kolonialak barne.

[PLATFORM%20FOR%20ACTION%20INITIATIVES_Full%20List%20_0.pdf](#)

6. UNCTAD (2025). *Mundu zorpetu bat*. <https://unctad.org/es/publication/un-mundo-endeudado>

Zor Subiranoari buruzko Nazio Batuen Esparru Konbentzioa sortzeko gizarte zibileko erakundeek egindako presioa zapuztu egin zuten herrialde aberatsek, eta «lantalde» soilean geratu zen hizkuntza. Zauriari gatzatza, Nazioarteko Diru Funtzari (NDF) eta Munduko Bankuari, hau da, hegoalde globaleko herrialdeak garapenaren eta azpiratze ekonomikoaren gaur egungo krisian sartu dituzten erakunde berberei, eskatu zitzaizkien lantaldea gidatzeko, zorrari eta mailegu subirano arduratsuari buruzko «borondatezko» printzipio gidarien multzo batekin bat proposatuz, baita hori inplementatzeko proposamenak ere.

Herrialde askok legez kontrako zor gorrotagarri horiek ordaintzen jarraitzen dute oraindik ere, nahiz eta kanpotik etorritako dominazio estraktibo eta bortitzetan duten jatorria. Munduko zorraren arkitektura zatikatuak jarraitzen du izaten herrialde mailegu-hartzaileen erronka handienetako bat, mailegu-emaile bakoitzak bere baldintzen arabera jarduten baitu, baldintza gogorrekin eta desberdintasunekin, interes-tasetan, adibidez. Munduko zorraren zatirik handiena mailegu-emaile pribatuen esku dagoen arren, hegoalde globaleko eta iparralde globaleko herrialdeek ez dituzte eskubide berak maileguan hartzeko orduan. FfD4k ez zien modu esanguratsuan heldu mailegu-emaile pribatuek dakartzaten erronkei, modu independentean jarduten dutelako eta ez daudelako lotuta finantza-arau bilateral edo multilateralen bidez. Dena den, Biltzarrak biziki animatu zituen hala sektorea nola finantzari pribatuak finantziarioa handitzera eta beren produktuak dibertsifikatzera, munduko eskaerari erantzuteko. Mugimendu horrek finantziario pribatua handitu lezake, eta hori garestia eta jasangaitza da.

Zor Subiranoari buruzko Nazio Batuen Esparru Konbentzioa sortzeko gizarte zibileko erakundeek egindako presioa zapuztu egin zuten herrialde aberatsek, eta «lantalde» soilean geratu zen hizkuntza. Zauriari gatzatza, Nazioarteko Diru Funtzari (NDF) eta Munduko Bankuari, hau da, hegoalde globaleko herrialdeak garapenaren eta

azpiratze ekonomikoaren gaur egungo krisian sartu dituzten erakunde berberei, eskatu zitzaizkien lantaldea gidatzeko, zorrari eta mailegu subirano arduratsuari buruzko «borondatezko» printzipio gidarien multzo batekin bat proposatuz, baita hori inplementatzeko proposamenak ere. Gaur egun duen egiturarekin, zor globalaren erregimenak aukera ematen die mailegu-emaileei zor subiranoa gidatzen duten arauak eta mekanismoak kontrolatzeko, eta, horren ondorioz, zor-zikloak betikotzen dituen, subiranotasun fiskala mugatzen duen eta giza eskubideak ahultzen dituen sistema bat sortzen da.

Era berean, gainzorpetzeari heltzeko mekanismo gisa proposatu zen G20ko Esparru Komuna konplexua, zurrana, luzea eta hautagarritasun murriztailekoa da: errenta baxuko herrialdeek bakarrik aplikatu dezakete formalki, eta kanpoan uzten dira halaber berregituraketa behar duten eta zor handia duten errenta ertaineko dozenaka herrialde. Aitzitik, NBEk gidatutako eta Zor Subiranoari buruzko Nazio Batuen Esparru Konbentzioak babestutako mekanismo batek sistema bidezko, inpartzial eta auresangarri bat bermatuko luke, gai dena zor subiranoaren krisia konpontzeko zein konponbidea eman beharrean zorraren krisian sakontzen duten hartzekodunek edo zordunek gidatutako prozesuen nagusitasunari heltzeko. Are gehiago, horrelako konbentzio batek etorkizuneko krisiei aurrea hartzeko balioko luke, printzipio lotesleak ezarriko babilutuzke mailegu eta zor arduratsurako, gardentasuna handitzeko eta bermatzeko zorraren zerbitzuak ez duela arriskuan jartzen zerbitzu publiko eta sozialetan inbertitzeko estatuek duten ahalmena, hala nola osasunean edo hezkuntza publikoan, edo erresilientzia klimatikoan, horiek guztiak eskubide ekonomiko eta sozialen parte integrala baitira.

Munduko justizia fiskala: egiturazko aldaketarik gabeko konpromisoak

Giza eskubideak ardatz dituen mundu-mailako zerga-sistema demokratiko, bidezko eta ekitatibo baten aldeko ahaleginen baitan, FfD4k konpromisoa hartu zuen nazioarteko lankidetzatza fiskala inklusiboa eta eraginkorra izango dela bermatzeko, onuragarria pertsona guztientzat, eta hegoalde globaleko herrialdeek nazioarteko zerga-arkitekturan duten ahotsa eta ordezkaritza indartu egingo direla eta ongi ordezkatzeko direla. Beren aldetik, herrialdeek

Mundu-mailako zerga-sistema ekitatibo bat funtsezkoa da finantza-garapenerako, legez kontrako finantza-fluxuei aurre egiteko eta zerbitzu publikoen azpifinantziazio kronikoari buelta emateko. Hala ere, FfD4ren azken dokumentuak ez ditu behar bezainbeste jorratzen korporazio multinazionalak dagokiena ordainduko dutela bermatzeko beharrezkoak diren erreforma sistemikoak, eta, horrez gain, ez du konpromiso zehatzik sustatzen aberastasuna fiskalizatzeko, gehiegizko irabazien fiskalitaterako edo ingurumena suntsitzen duten industrien gaineko mundu-mailako gaintasetarako.

borondatea erakutsi zuten NBERen Nazioarteko Lankidetza Fiskalerako Esparru Konbentzioaren eta haren protokoloen aldeko negoziazioetan modu eraikitzailean parte hartzen jarraitzeko, eta prozesuari babesa emateko eskatu zuten. Hori aurrerapauso handia izan daitekeen arren, oraindik ere ez dago batere argi mekanismo horrek Ekonomia Lankidetza eta Garapenerako Antolakundea (ELGA) erabat ordezkatzeko lukeen mundu-mailako arau fiskalak ezartzeko erakunde nagusi moduan. ELGAren nagusitasunak gobernantza ekonomiko kolonialean errotutako aspaldiko desparekotasun estruktural bat islatzen du, zeinaren bidez nazio aberatsen talde txiki batek ezartzen dituen zerga-fluxu globalak, irabazien lekualdaketa eta diru-sarreraren banaketa gidatzen dituzten arauak.

Behar-beharrezkoa da, aurrera egin ahala, zerga-erabaki globalak NBEko herrialde guztien erantzukizun partekatu bihurtzea, eta ez gaur egungo egituraren bezala, garai kolonialekoa baita, bidegabea, eta diskriminatzailea askotan.

Nazioarteko Lankidetza Fiskalerako Esparru Konbentzioari buruz Nairobinegin berri den hirugarren negoziazio-txandak nolabaiteko optimismoa eragin digu. Nairobiko negoziazioetan izan ziren Red-DESCeko hainbat kidek une kritikotzat jo zuten, ebaluatzeko Konbentzioak munduko gobernantza fiskalean aldaketa eraldatzailea ekar dezakeen edo,

ostera, oinarrizko desparekotasunak bere horretan utziko dituzten erreforma mailakatuen alde egingo duen azkenean.

Mundu-mailako zerga-sistema ekitatibo bat funtsezkoa da finantza-garapenerako, legez kontrako finantza-fluxuei aurre egiteko eta zerbitzu publikoen azpifinantziazio kronikoari buelta emateko. Hala ere, FfD4ren azken dokumentuak ez ditu behar bezainbeste jorratzen korporazio multinazionalak dagokiena ordainduko dutela bermatzeko beharrezkoak diren erreforma sistemikoak, eta, horrez gain, ez du konpromiso zehatzik sustatzen aberastasuna fiskalizatzeko, gehiegizko irabazien fiskalitaterako edo ingurumena suntsitzen duten industrien gaineko mundu-mailako gaintasetarako. Azpimarratu behar da kontraesanak daudela ekintza-arlo batzuetako eta besteetako adierazpenen (edo *konpromisoen*) artean, eta, beraz, dokumentu nagusia zaharkituta geratzen dela. Esate baterako, baliabide **publiko** nazionalen buruzko atalak tributazio korporatiboa jorratzen du, multinazionalak barne; eta nazioarteko finantza- eta merkataritza-jarduera **pribatuari** buruzko atalak, berriz, neurri handi batean «inbertsioei» ematen die lehentasuna, eta, hortaz, garapen-bidean dauden herrialdeetako finantza-berregituraketara eta kapital-merkatuetara bideratzen du arreta. Zehatzago esanda, azken dokumentuko 31. paragrafoan hau jartzen du: «Inbertsio-aukera lehiakorrek beti ez datoz bat sektore publikoaren helburuekin. Horrekin azpimarratzen da arau-esparruak eta pizgarriak behar direla inbertsio pribaturako, nazio- eta mundu-mailan, garapen jasangarria sustatzeko...». Zehatzago esanda, konpromisoa hartzen du mugaz gaindiko jarduera ekonomikoaren kostuak murrizteko eta hori betetzeak erakunde pribatuentzat dakarren zama arintzeko. Horrek esan nahi du bi ataletan kontrakoa esaten dela funtsean, inbertsio pribatuek irabaziak bilatzen eta lehenesten baitituzte beti beste guztiaren gainetik.

Ondorioz, Sevillako Konpromisoak nazioarteko lankidetza fiskalaren garrantzia nabarmentzen duen arren, munduko gobernantza fiskala demokratizatuz eta zerga-sistemek justizia ekonomikoa, justizia klimatikoa eta giza eskubideak betetzen lagunduko dutela bermatuz munduko botere-desparekotasunak aldatzeko beharrezkoak diren egiturazko aldaketak eragozten ditu azken batean.

1945ean harrapatuta gelditu zen nazioarteko finantza-arkitektura

Bigarren Mundu Gerraren ondoren sortutako nazioarteko finantza-arkitekturak gabezia sakonak ditu. Klima-aldaketa edota arraza- edo genero-bidegabekeriak kontuan hartu gabe diseinatu zenez, oraindik ere ez du asmatu gaur egungo krisi eta erronkei erantzuten.

Sevillako Konpromisoak konpromiso generiko bat berresten du:

«Konpromisoa hartzen dugu nazioarteko finantza-arkitektura aldatzen jarraitzeko, haren erresilientzia, koherentzia eta eraginkortasuna indartuz, gaur egungo eta etorkizuneko erronkei eta krisiei erantzuteko. Konpromisoa hartzen dugu munduko gobernantza ekonomiko inklusiboagoa, adierazgarriagoa, ekitatiboagoa eta eraginkorragoa ezartzeko, gaur egungo errealitateak hobeto islatzen dituen. Nazio Batuen, nazioarteko finantza-erakundeen eta nazioarteko beste erakunde batzuen funtzioak indartuko ditugu, eta, aldi berean, haien mandatuak eta zuzendaritza-organoak aintzatetsiko ditugu (...)).»

Dena den, hizkuntza hori lausoa da oraindik, egiturazko erreformetarako konpromiso lotesle, zehaztapen politiko edo agenda oro saihestuz.

Gaur egungo munduko finantza-arkitekturak erabateko berrikuntza eta eraldaketa eskatzen du, nazioarteko finantza-erakundeen gobernantza barne, hala nola hauena: garapenerako banku multilateralak, NDF edo Munduko Bankua, baita garapenerako beste banku publiko batzuk eta munduko funtsak ere. Erakunde horiek ondare kolonial eta inperialean txertatuta jarraitzen dute, XXI. mendean garapen-bidean dauden herrialdeen beharrak babesteko gaitasunik gabe. Gizarte zibilak FfD4n ohartarazi zuen, halaber, erakunde horietako askok gero eta gehiago funtzionatzen dutela harrapaketa korporatiboaren baldintzapean, horrek eragina duela politiken lehentasunetan, eta erreforma esanguratsuak egitea mugatzen duela.

Are gehiago, zor subiranoaren gaiak jorratzen dituzten hartzekodun-taldeek sorrerak, hala nola Parisko Kluba, Londresko Kluba, Zorra Tratatzeko Esparru Komuna, G20ko eta Parisko Klubeko herrialdeek adostutako Zorraren Zerbitzua Eteteko Ekimenaz

Gobernantza demokratiko handiagoa bermatzeko eta harrapaketa korporatiboa gelditzeko, beharrezkoa da NBE buru duen prozesu bat hastea, NDFren, Munduko Bankuaren eta garapenerako beste banku multilateral batzuen gobernantza-egiturak modu integralean berrikusteko eta aldatzeko. Bretton Woodseko erakundeen eta nazioarteko beste finantza-erakunde batzuen gobernantza eta mandatura berrikusi beharko lirateke, eta Nazio Batuen Gutunarekin eta giza eskubideen nazioarteko zuzenbidearekin lerrokatu, bereziki autodeterminaziorako eta garapenerako eskubideei dagokienez, inklusiboa, demokratikoa eta kontu-emailea den gobernu arteko prozesu baten baitan.

harago, edo Kapital Merkatuen Nazioarteko Elkartea (zor-tresnetarako ereduazko klausulak argitaratzen dituen erakunde pribatu bat), baita kredituak kalifikatzeko munduko agentziak ere, horrek guztiak, lehenbailehen berrikustea eta eguneratzea eskatzen du, modu esanguratsuan heldu ahal izateko gaur egungo mundu-mailako finantza-behar eta -eskakizunei, hegoalde globalekoei bereziki.

Biltzarrak ez zion berariaz heldu NDF eta Munduko Bankua eraldatzeko premiazko beharrari, nahiz eta erakunde horiek funtsezko egitekoa duten munduko finantza-arkitekturan. Gobernantza demokratiko handiagoa bermatzeko eta harrapaketa korporatiboa gelditzeko, beharrezkoa da NBE buru duen prozesu bat hastea, NDFren, Munduko Bankuaren eta garapenerako beste banku multilateral batzuen gobernantza-egiturak modu integralean berrikusteko eta aldatzeko. Bretton Woodseko erakundeen eta nazioarteko beste finantza-erakunde batzuen gobernantza eta mandatura berrikusi beharko lirateke, eta Nazio Batuen Gutunarekin eta giza eskubideen nazioarteko zuzenbidearekin lerrokatu, bereziki autodeterminaziorako eta garapenerako eskubideei dagokienez, inklusiboa, demokratikoa eta kontu-emailea den gobernu arteko prozesu baten baitan. Horren barruan sartu beharko litzateke boto-boterearen birbanaketa, de facto-ko betoak kentzeko, garapen-bidean dauden herrialdeen ordezkaritza

zabaltzeko eta subiranotasun-berdintasunean oinarritutako oinarritzko botoa berrezartzeko.

Erreforma-ahalegin zabalago hori juridikoki loteslea den tresna baten alde abian jarritako negoziazioei ere lotuta dago, korporazio transnazionalak giza eskubideen nazioarteko zuzenbidearen arabera erregulatzen (Red-DESC sareak babestutako ekimena, eta finantza-sistema osoan kontu-emate korporatibo handiagoaren beharra ere nabarmentzen du).

Ekintza klimatikorako aukera-leiho bat, berehala itxia

Biltzarrean aitortu zen agortzen ari dela krisi klimatikoaren okerragotzekari aurre egiteko eta amaiera emateko denbora, biodibertsitatea galtzen eta basamortutzea azkar zabaltzen ari dela, eta horrek eragin eta inpaktu handia duela emakumeengan. FfD4n azpimarratu zen premiazkoa dela klima-aldaketaren aurkako ekintzan asmo handiagoak izatea Klima Aldaketari buruzko Nazio Batuen Esparru Konbentzioa eta Parisko Akordioa ezartzen, klima-aldaketa arintzen, hartara egokitzen eta ekintzak inplementatzeko finantziarioa ematen arreta jarrita. Hala ere, badakigu krisi klimatikoaren finantziarioak arreta geopolitikoa erakarri duela gaur egun, AEBek uko egin baitiote Klima Aldaketari buruzko Nazio Batuen Esparru Konbentzioaren parte izateari, nahiz eta beraiek diren kutsatzaile handienetako bat.

Biltzarrak ingurumenari eta garapenari buruzko Rioko Adierazpenaren printzipio guztiak berretsi zituen, Erantzukizun Komun baina Bereizien Printzipioa barne (CBDR, ingelesezko siglak). Horiek konpromisoetan sartzea, Red-DESC sareko kideek defendatutako eskakizunen⁷ parte gisa, beharrezkoa da, eta lagungarria zein funtsagarria izango da garapen jasagarriaren eta ekintza klimatikoaren finantziarioan nazio aberatsenei kontuak emanarazteko orduan. Finantziarioak justizia errestitutiboan errotuta egon beharko du, dirulaguntzatan banatua, ez mailegutana, eta baldintzarik gabeko finantziario klimatikoan, hegoalde globaleko herrialdeen

benetako beharretan eta erantzukizun historikoan oinarrituta, eta ezingo ditu gidari izan ez merkatua, ezta munduko gobernantza ekonomikoaren beste arlo batzuetan erreforma eraldatzaileak mugatzen dituzten harrapaketa korporatiboaren dinamika berberak ere.

Alabaina, Sevillako Konpromisoak mineral kritikoak merkantilizatzen ditu aldi berean, eta nazioarteko merkataritza-agenda bat sustatzen du, «garapen-bidean dauden herrialdeen dibertsifikazio ekonomiko» moduan. Praktikan, horrekin arrisku handiagoa dago baliabideekin, baliabide-erazketarekin, eskulanarekin eta klima-aldaketarekin lotutako gatazkak areagotzeko. «Ekintza-arloetan» dauden kontraesan horiei egiturazko erreforma holistiko baten bidez heltzen ez bazaie, aldaketa esanguratsu baterantz aurrera egin beharrean, proposatutako soluzioek ondorio negatiboak izango dituzte: elkarrekin lotutako krisiak sakondu egingo dira, eta mugimenduaren ahaleginak are gehiago zatikatuko dira.

Ondorioa

Laburbilduz, gupidarik gabeko krisi gainjarrien une honetan (erabakiak hartzeko espazioen harrapaketa korporatiboa eta ondare kolonial eta inperialtan errotutako finantza-sistema bereizgarri izanik), FfD4 aukera erabakigarria zen munduko finantza-arkitektura berrirudikatzeko. Hala ere, hegoalde globalaren finantza-behar larriei aurre egiteko esparru sendo, inklusibo, demokratiko eta arduratsu bat lortzeko itxaropen handiak zeuden arren, Sevillako Biltzarra, azken batean, «aurrerapen esanguratsurik gabeko ukitu estetiko batean» geratu da.

Nahiz eta Sevillako Konpromisoan eta Sevillako Ekintza Plataforman zirriborratutako ekimenak asko izan, mendekotasuna dute lotesleak ez diren araukiko, borondatezko esparruekiko eta merkatuak bultzatutako finantza-soluzioekiko, eta, beraz, urrun daude hegoalde globaleko bidegabekeria ekonomiko, klimatiko eta sozialaren egiturazko motorrei heltzeko beharrezkoak diren erabakietatik. Aitzitik, munduko finantza-arkitektura guztiz berrabiarazi behar da, gobernu-erakundeak, -politikak eta -egiturak eraldatzeko, eta, horrela, unean uneko errealitatei erantzungo dien helburu batera egokitu daitezen, pertsonen giza eskubideak eta planeta oinarri izanik. ■

7. ESCR-Net (2025). *Financing Our Right to the Future; FfD4 must Center People, Planet and Human Rights*. <https://www.escr-net.org/resources/financing-our-right-to-the-future-ffd4-must-center-people-planet-and-human-rights/>

Wangari Kinoti²
Action Aid

2026ko lehen egunean, Ameriketako Estatu Batuetako Segurtasun Nazionaleko Departamentuak hondartza eder baten ertzean aparkatutako auto klasiko baten argazkia zabaldu zuen sare sozialetan.³ Argazkiarekin batera honako testu hau zetorren: *America after 100 million deportations* ['Amerika 100 milioi deportazio eta gero']. Departamentu horrek azalpen hau erantsi zuen bazter batean: *The peace of a nation no longer besieged by the Third World* ['Jada hirugarren munduak setiatzen ez duen nazio baten bakea']. Egun batzuk geroago, Etxe Zuriko Politiken Kabineteko zuzendariordeak, Stephen Millerrek, hau argitaratu zuen: «Bigarren Mundu Gerra baino ez askoz geroago, Mendebaldeak bere inperio eta koloniak desegin zituen, eta, zergadunek finantzatuta, kopuru handiak bidaltzen hasi zen, laguntza moduan, garai bateko lurralde horietara (nahiz eta jada aberastasun eta aurrerapen handia emana zien). Mendebaldeak, gainera, bere mugak ireki zituen, alderantzizko kolonizazio moduko batean. Ongizatea eta, beraz, baliabideak eman zizkien iritsi berri horiei, eta, horrez gain, herritartasun osoa ez ezik, jatorrizko herritartasunarekiko tratu legal eta ekonomiko pribilegiatua ere eman zien haiei eta haien familiei. Esperimentu neoliberal hau mundu modernoa eraiki duten leku eta herriei ezarri zaien autozigor luzea izan da, funtsean».

Bi aipu horiekin eman nahi izan diot hasiera hausnarketa-artikulu honi, gaur egungo narratiba inperialista neoliberalak moldatzen ari den historiaren distortsio zentzugabearen erakusgarri. Gezurra dirudi bi aipu horiek Ameriketako Estatu Batuetako



Iturria: Instagram.

Millerren esanetan Mendebaldearen «aberratasun eta aurrerapen handia» jaso zuten «inperio» eta «kolonien» artean Afrika kontinentearen gehiengoa dago. Baina, hark esandakoaren kontra, ongi jakina da Mendebaldeko Europako sistema inperialista kapitalistak Afrikako eta beste lurralde kolonizatu batzuetako baliabideak eta eskulana bereganatzen jardun zuela. Erauzketa horrek, bere forma guztietan, jarraitu egiten du gaur egun.

gobernu-erakunde baten eta gobernu horretako goi-ordezkarri baten sare sozialetako kontu ofizialetan argitaratzea. Zorritzarekin, garai honetan, ez da hala.

Millerren esanetan Mendebaldearen «aberratasun eta aurrerapen handia» jaso zuten «inperio» eta «kolonien» artean Afrika kontinentearen gehiengoa dago. Baina, hark esandakoaren kontra, ongi jakina da Mendebaldeko Europako sistema inperialista kapitalistak Afrikako eta beste lurralde kolonizatu batzuetako baliabideak eta eskulana bereganatzen jardun zuela. Erauzketa horrek, bere forma guztietan, jarraitu egiten du gaur egun.

1. Itzulpena: AEIOU Traductores Sooc. Coop. Mad.

2. Wangari Kinoti Emakumeen Eskubideen eta Alternatiba Feministen arduradun globala da ActionAid Internationalen, eta zaintzekin, emakumeen lanarekin eta egiturazko genero-indarkeriarekin lotuta dago bere lana. Nawi Afrifem eta South Feminist Futures taldeetako kidea ere bada. Nairobini bizi da, Kenyan.

3. Ez zen jarri norena zen argazkia, baina Hiroshi Nagai margolari japoniarrarena zen.

Horregatik, Afrikan, Kariben eta diasporan, oro har, gero eta erreparazio-eskaera gehiago ari dira egiten. Afrikako Batasunaren Erreparazioei buruzko Akkrako Adierazpenak⁴, 2023an adostuak, afrikarren eta haien ondorengo pertsona guztien erreparazio-justizia eta sendatzea sustatzea du ardatz. Ozeano Atlantikoaz bestaldeko esklabotzaren, kolonialismoaren eta *apartheid*aren eskutik pertsona horien aurka egindako bidegabekeria historikoei eta krimen kaltegarriei egiten die erreferentzia, baina baita —eta oso esanguratsua da— egungo nazioarteko ordena ekonomiko eta politikoetan gaur egun dauden desparekotasunei ere.

Feminista afrikarrok beti izan dugu argi erreparazio-justiziaren prozesuak ezin dituela errepikatu bazterketaren, bidegabekeriaren, esplotazioaren eta desoroimenaren herentzia kolonial eta patriarkalak; hau da gure aukera botere-harreman arrazista, sexista, kolonial, estraktibo, esplotatzaile eta hertsatzaileetatik askatzeko, eta erreparazio-justiziaren gure bilaketak hori guztia islatu behar du gure printzipio eta jardunbideetan. Kapitalismo globalaren modu zuzen bat izan zen esklabotzatik, emakumeak izan gara eskulan merkeena kapitalerako, eta subjektu kolonial gisa tratatu gaituzte. Zuzeneko harremana dago arrazakeriaren, patriarkatuaren, kapitalismoaren eta indarkeriaren artean. Hori agerian geratu da esklabotza, kolonizazio eta *apartheid* guztietan. Eta nagusi izaten jarraitzen du gaur egungo mundu-sisteman, oinarri izanik globalizazioa, liberalizazioa, pribatizazioa eta lehiakortasuna.

Sistema global nagusiak zerbitzu publikoen sistemak desfinantzatzen, kolapsatzen eta pribatizatzen ari dira, emakumeen eta nesken ordaindu gabeko lana aprobeztatuz. Sistema horiek, halaber, lana desarautzen eta liberalizatzen ari dira, eta, hala, emakumeak behartzen dituzte enplegu prekario eta gaizki ordainduak onartzera, indarkeria- eta jazarpen-giroa dutenak sarri askotan, lan-baldintza egoki edo duinak lortzeko inolako bermerik gabe. Sistema horrek lana merkantilizatu du merkataritza-akordioen bidez mugetan zehar merkaturatu eta esportatzeraino. Eta egiturazko indarkeria hori guztia hazten doa egunez egun finantza-inperialismoaren eltzetaz irakinean. Herrialde aberastuenek, banku eta

korporazio handiekin batera, botere neurrigabea izaten jarraitzen dute eta baliatzen dute munduko finantza-arkitekturaren bidez. Horrek aukera ematen die —hegoalde globalean dituzten elite aliatuen sareen laguntzarekin (zuzenean beren eragileak edo ohartu gabe konplizeak izanik)— baliabide material eta finantzarioak bereganatzeko eta, erabakigarria dena, munduko agenda politikoak kontrolatzeko.

Finantza-inperialismoaren funtsezko oinarrietako batzuk aski ezagunak dira dagoeneko: kanporra, moneta-hegemonia edo -dominazioa, finantzarizazioa (edo finantza-globalizazioa, hau da, ekonomiaren funtzionamenduan eta haren nazioko eta nazioarteko erakunde gidarien funtzionamenduan motibazioek, erakundeek eta finantza-eliteek duten nagusitasun gero eta handiagoa) eta legez kontrako finantza-fluxuak (zerga-ihesa, ustelkeria eta kapital-zuriketa barne). Kalkuluen arabera, Afrikak 88 600 milioi dolar estatubatuar (USD) galtzen ditu urtero kapital-ihesak.⁵

Eta, hain justu, finantza-arkitektura global horiei heldu nahi izan die duela 20 urte baino gehiago Monterreyn hasitako Garapenerako Finantziario Prozesuak (FfD, ingelesezko siglak). Joan den ekainean, Garapenerako Finantziarioari buruzko Nazioarteko IV. Biltzarra egin zen Sevillan (FfD4), elkarren artean gurutzatzen eta elkar larriagotzen ari diren askotariko krisiak bata bestearen atzetik zetozen une batean. Mundua balantzaka jarri da hauengatik guztiengatik: desparekotasun gero eta handiagoak, herrialdeen barruan zein herrialdeen artean; zorraren zama jasanezinak; legez kontrako finantza-fluxuak; genozidioen, gatazken eta militarismoaren gorakada; gizarte zibilaren espazio-murrizketa; eskubide-arloko atzerakada erreakzionarioak emakumeentzat eta pertsona migratzaile, errefuxiatu eta marjinatuentzat sexu-orientazioagatik edo genero-identitateagatik; planetaren krisi hirukoitza okertzea (klima-aldaketa, kutsadura eta biodibertsitate-galera); gose- eta desnutrizio-aldi gero eta luzeagoak; merkataritza-sistema multilateralaren haustura gero eta handiagoak; austeritatearen «kultu» iraunkorra; eta harrapaketa korporatiboa.

Aurreko FfD3k, 2015ean Adis Abeban egin zenak, aldaketa erabakigarri bat sartu zuen garapeneren

4. <https://accrasummit.com/wp-content/uploads/2022/08/La-Declaracion-De-Accra-Sobre-Reparaciones-Y-Sanacion-Racial-.pdf>

5. https://unctad.org/system/files/official-document/presspb2020d6_en.pdf

Afrikako herrialdeak antzeko kreditu-kalifikazioak eta adierazle makroekonomikoak dituzten beste eskualde batzuetako herrialdeak baino askoz ere interes-tasa altuagoak ordaintzen ari dira. «Afrikaren prima» hori 74 500 milioi USDkoa da urtean, eta, ondorioz, Afrikako 23 herrialdek gutxienez gehiago gastatzen dute zorra ordaintzen, osasunean eta hezkuntzan baino. Gauza bera gertatzen da Latinoamerikako, Karibeko, Asiako eta Pazifikoko herrialde batzuetan.

finantziazioari buruzko diskurtsoan, Munduko Bankuak (MB), Nazioarteko Diru Funtsak (NDF) eta beste garapen-banku batzuek «Milaka milioitik bilioietara» mantra sartu baitzuten⁶. Horrek «paradigma-aldaketa» bat eskatuko zuen, «finantziazio-esparru adimendun» baterantz, Garapenerako Laguntza Ofizialera (GLO) milaka milioi bideratzetik inbertsioetara bilioiak bideratzera igaroko zena (publikoak, pribatuak, nazionalak eta globalak), sektore pribatuko finantzak eta enpresak nabarmenduta. Eredu horren arabera, finantza publikoak (GLO barne hemen) gero eta gehiago erabili behar ziren finantziazio pribatua «erakartzeko», eta, hortaz, garapenak «errentagarria» izan beharra zuen. Eredu horren kritikak eta porrot-adibideak ugariak izan ziren arren⁷, hegoalde globaleko gobernu askok hura errepikatzen jarraitzen dute, loroen pare, zorrean gero eta gehiago hondoratzen diren bitartean. Kapital pribatua zorraren interesen ordainketetatik ateratzen ari dena gehiago da mailegu berrien bidez sartzen ari dena baino. Hau da «esperimentu neoliberalaren» benetako efektua. Eta hirugarren mundua da, hain zuzen, iparralde globaleko eliteak setiatuta daukana finantza-inperialismoaren bidez. Egia da finantza-modu horrek «aberastasuna eta aurrerapena» sortzen dituela, baina elitearentzat.

Afrikako herrialdeak antzeko kreditu-kalifikazioak eta adierazle makroekonomikoak dituzten beste eskualde batzuetako herrialdeak baino askoz ere interes-tasa

altuagoak⁸ ordaintzen ari dira. «Afrikaren prima» hori 74 500 milioi USDkoa da urtean, eta, ondorioz, Afrikako 23 herrialdek gutxienez gehiago gastatzen dute zorra ordaintzen, osasunean eta hezkuntzan baino. Gauza bera gertatzen da Latinoamerikako, Karibeko, Asiako eta Pazifikoko herrialde batzuetan.

Horregatik, zorraren eta laguntzaren nazioarteko egiturak aldatzeko proposamen bideragarri guztiei egin zitzaizen sabotaje aktiboa ikusita, etsipen handia sortu zen sektore pribatuko 6000 ordezkari ingururekin batera⁹ Sevillan bildu ziren gizarte zibileko taldeen artean. Berezi Ameriketako Estatu Batuak hauekin guztiekin lotutako paragrafo osoak blokeatzen eta ezabatzen aritu zen sistematikoki: baliabide publiko nazionalak, garapenerako nazioarteko lankidetzak, finantziazio pribatua, zor subiranoak, irismen sistemikoko gai oro, zientzia eta teknologia, jarraipena eta ikuskatzea. Eta horretan, beste nazio aberats batzuk izan zituen lagun, hala nola Australia, Zeelanda Berria, Kanada, Japonia eta Erresuma Batua, baita Europar Batasuna ere. Sevillako Konpromisoak, hala, «munduko gobernantza ekonomikoaren mugarriak eta *statu quo*a berresteko konpromiso bideragarriak ahultzea, desitxuratzea eta ezabatzea ekarri du, baita kritika asko ere, aldaketa gutxi dakartzalako, atzerapauso bat agian, aurreko FfD biltzarretako azken hiru dokumentuei dagokienez»¹⁰.

Izan ere, egiaz, Sevillako Konpromisoak arriskuan jartzen du milioika pertsonaren bizitza. Biltzar ofizialaren atarikoetan, NBEko idazkari nagusiak prozesuaren «kontzientzia» moduan deskribatu zuen gizarte zibila. Bada, kontzientzia hori ez zen kontuan hartu, alde batera utzi zen, eta estatu kideen eta NBEko agentzien arteko elkarriketatik kanpo geratu zen. Horrez gain, hitz egiteko oztopo oso murriztaileak jarri zitzaizkion eta biltzarraren egoitzatik kanporatua izateko mehatxua ere jaso zuen. Horrenbestez, biltzar hau eliteek bereganatutako espazio bihurtu zen azkenean, multilateralismoaren gaur egungo egoeraren isla: gehiengoa baztertuz eta eraldatu behar zituen egitura berberak indartuz.

6. <https://thedocs.worldbank.org/en/doc/622841485963735448-0270022017/original/DC20150002EFinancingforDevelopment.pdf>

7. <https://www.phenomenalworld.org/analysis/dispatch-from-seville/>

8. <https://www.undp.org/press-releases/more-objective-credit-ratings-could-save-billions-african-countries-development>

9. <https://www.phenomenalworld.org/analysis/the-private-sector-at-seville/>

10. <https://www.ipsnews.net/2025/07/financing-for-whom-trials-tribulations-from-the-fourth-financing-for-development-in-seville/>

Sevillako Konpromisoak Erantzukizun Komun baina Bereizietan (CBDR, ingelesezko siglak) oinarritu behar zuen, eta horrek esan nahi du krisi globaletan zerikusi handiena izan duten herrialdeek beren gain hartu behar zutela hari heltzeko erantzukizun handiena. Horrek barne hartu behar zuen herrialde pobretuei funtsak ematea, baldintza murriztailerik jarri gabe, eta krisien lehen larroan dauden taldeei funts horietan zuzenean sartzeko aukerak bermatzea. Eta hor da erabakigarria erreparazio-justizia, esklabotzak, kolonialismoak eta hegoalde globaleko baliabideak erauzteak eragindako kalte ekonomikoarekin eta ingurumen-kaltearekin lotuta bereziki. Horrek, «laguntzak» ez ezik, aldaketa sistemikoak ere ekarri beharko lituzke ororen gainetik, zor-, merkataritza- eta fiskalitate-egituretan, eskualde horiei guztiei kalte egiten jarraitzen baitute.

Iaz FfDko¹¹ prozesutik formalki erretiratzeaz gain, gobernu estatubatuarrak orain iragarri du nazioarteko 66 erakundetatik ere erretiratuko dela, «Ameriketako Estatu Batuen interesetarako jada baliogarriak ez diren» NBERen¹² 31 erakunde barne. Erretiratze horien artean dago Klima Aldaketari buruzko Nazio Batuen Esparru Konbentzioarena, eta, gauzak horrela, Ameriketako Estatu Batuak da itun horren parte ez den herrialde bakarra, munduko karbono-isurien bigarren ekoizle handiena izan arren. Herrialde aberastuek hainbat zor historiko, praktikoa eta moral dituzte klima-aldaketaekin, kolonialismoarekin, esklabotzarekin, lege kontrako finantza-fluxuekin eta sistema multilateralean adostutako konpromisoak ez betetzearekin lotuta. Kuantifikatzen baditugu, eta herrialde pobretuek kontratuz ordaindu behar dituzten zorrek alderatzen baditugu,¹³ emaitzak deigarriak dira. Adibidez, herrialde aberastu eta kutsatzaileek klima-aldaketaaren aurrean zaurgarrienak diren errenta baxu eta ertain-baxuko herrialdeei ordaindu beharko lieketen zor klimatikoa 107 bilioi USDkoa izango litzateke. Herrialde horien baterako guztizko kanpo-zorra 1,45 bilioi USDkoa izanik, kopuru hori halako 70 baino gehiago da. Herrialde aberastu eta

kutsatzaileek 36 bilioi USD zor izango liozkete Afrikari, zor klimatiko moduan.

Horrek agerian jartzen du botere globalaren desoreka kezkarria, herrialde pobretuen kanpo-zorrek gupidarik gabe aplikatzea ahalbidetzen baitu, herrialde aberastuen zor klimatikoak funtsean ordaindu gabe eta bete gabe dauden bitartean. Desoreka horiei heltzean, ez dugu ahaztu behar pertsonengan benetan duten eragina aipatzea. Klima-aldaketaekin eta ingurumen-narriadurarekin lotutako hondamendien ondorioz, bizibideak galtzen ari dira, eta erabilgarri dauden baliabideak mugatzen. Horrela, emakumeak eta neskak sexu-esplotazioan sartzen dira ezinbestean, elikagaien eta oinarritzko baliabide naturalak eskuratzearen truke, beren inguruetako ura eta egurra adibidez. Lehorteak direla-eta, emakume eta neska askok distantzia luzeagoak egin behar izaten dituzte ur bila, inolako babesik gabe, eta, askotan, jazarpena, tratatu txar psikologikoak eta erasoak jasaten dituzte ura hartzeko guneetan. Era berean, hirietara eta beste hiri-inguru batzuetara emigratzen ari diren emakume asko, dela behartutako lekualdaketaetik, dela klima-aldaketaen ondorioz borondatez birkokatzeagatik, sexu-indarkeria jasateko arriskuan jartzen ari dira, etxebizitza segururik, enplegurik eta babes komunitarioko mekanismorik ez dutelako.

Indarkeria estu lotuta dago generoaren arabera lan-banaketaekin, eta banaketa hori, aldi berean, larriagotu egiten da krisi klimatikoagatik. Emakumeak neurritz kanpoko ardurak hartzen ari dira etxean: garbitu, erregaia eta ura bilatu, elikagaiak erosi eta janaria prestatu. Klima-aldaketaen inpaktuen ondorioz, zeregin horiek eskulan gehiago behar dute, eta, horrenbestez, emakumeen zama ekonomikoak handitu egiten dira, eta haien autonomia ekonomikoa higatu. Aipatutako erantzukizunak ez betetzeak etxeko indarkeria ekartzen du sarritan. Lur emankorrak urritu ahala, emakumeek —haien % 15en jabe baino ez jada— zaurgarritasun handiagoa dute etxea eta jabetzak galtzeko, nahiz eta ia guztiz haien mende dauden elikatzeko eta bizirauteko. Bizibideen galerak eta langabeziak lan prekario eta lurpekoak egitera bultzatzen dituzte emakumeak, eta lan horiek indarkeria-guneak dira. Zerrenda amaigabea da. Beraz, Afrikako eta munduko leku gehienetako emakume eta neskentzat, zor klimatikoa erreparazioei buruzko eztabaidaren elementu garrantzitsu bat da.

Une distopiko honetan, munduaren ikuspegi argia izan behar dugu eta kalteei aurrea hartzeko

11. <https://usun.usmission.gov/remarks-at-the-closing-meeting-of-the-preparatory-committee-for-the-fourth-international-conference-on-financing-for-development/>

12. <https://www.whitehouse.gov/presidential-actions/2026/01/withdrawing-the-united-states-from-international-organizations-conventions-and-treaties-that-are-contrary-to-the-interests-of-the-united-states/>

13. <https://actionaid.org/publications/2025/who-owes-who>

erabakia berritu behar dugu. Nola aurre egin diezaiokegu ausardiaz «suminaren aro» honetako polarizazio biziari? Nola eman diezaiekegu buelta gezur lotsagabeei? Nola euts diezaiekegu finantza-inperialismoaren eta kultura-dominazioaren inposaketei? Nola senda daitezke bereizketa, sumin, nahasmen, sufrimendu, beldur eta min gaindiezinak diruditen hauek? Horri heltzeko, 2025eko otsailean Nairobiri 40 feminista afrikarren artean¹⁴ izandako elkarrizketetara jo nuen. «Neoliberalismotik harago» doazen bizitza habitagarriak nola eraiki hausnartzeko bildu ginen, eta eztabaidatzeko zer egin genezakeen etorkizunerako gure asmoekin lotuta hamarkadetan zehar defendatutako ikuspegi feminista afrikarrak sendotzen laguntzeko. Gure saio hunkigarrienetako bat erreparazioei buruzkoa izan zen. Gu, gure aniztasunean, beste emakume batzuekin lanean ari gara gure duintasuna galdatzeko akordio kolektibo bat osatzen, eta gogoratu behar dugu erreparazioek hainbat elementu barne hartzen dituztela: leheneratzea, konpentsatzea eta —funtsezkoa dena— amaitzea eta gehiegikeria gehiago egingo ez direla ziurtatzeko bermeak. Esan genezake esklabotzak, kolonialismoak eta inperialismoak eragindako kalteak amaitu direla eta bermeren bat dugula horiek gehiago egingo ez direla ziurtatzeko? Noski ezetz. Hortaz, nahitaezkoa da propio egindako disrupzio bideratu eta estrategikoak sustatzea. Horrek berekin dakar finantza-arkitektura globalak sostengatutako egungo finantza-inperialismoaren sistemek berezkoa duten indarkeria etengabe salatzea. Eta berekin dakar, halaber, sistema hori etengabe sortzen ari den atomizazioaren eta indibidualismoaren aurkako erresistentzia zabalago eta zuzenagoa antolatzea (kulturala eta bizia). Lortu dezakegu, komunitate-alderdia berreskuratuz eta ekonomiaren helburua birdefinituz, kapitalismo neoliberalak garaitzeko; eta hori, gogorarazten zaigunez¹⁵, ezin da lortu sistemari dei moral soilak eginez. Eta, beraz, azkenik, neoliberalismotik harago doan mundu baten eraikuntza estrategikoan ere inplikatu behar dugu, mugimenduen eta problematiken artean etengabe elkartasuna sustatuz, eta hezkuntza politikoa indartuz, helburu izanik gaur egungo polikrisi urgenteekiko gure ulermena, posizionamendua, proposamenak eta diseinu kolektiboak sakondu eta zabaltzea. ■

Esan genezake esklabotzak, kolonialismoak eta inperialismoak eragindako kalteak amaitu direla eta bermeren bat dugula horiek gehiago egingo ez direla ziurtatzeko? Noski ezetz. Hortaz, nahitaezkoa da propio egindako disrupzio bideratu eta estrategikoak sustatzea. Horrek berekin dakar finantza-arkitektura globalak sostengatutako egungo finantza-inperialismoaren sistemek berezkoa duten indarkeria etengabe salatzea. Eta berekin dakar, halaber, sistema hori etengabe sortzen ari den atomizazioaren eta indibidualismoaren aurkako erresistentzia zabalago eta zuzenagoa antolatzea (kulturala eta bizia).

14. <https://actionaid.org/publications/2025/beyond-neoliberalism-weaving-feminist-future-together-jacaranda-paper>

15. <https://x.com/jasonhickel/status/2011801479384825972>

Katie Tobin

Women's Environment and Development Organization (WEDO)

Egiturazko analisi feministaren ikuspegitik³ —zenbait hamarkadatan izandako lidergo intelektualean eta hegoalde globalaren interesen defentsan oinarritua— gaur egungo sistema ekonomiko neoliberalaren ondorio zuzena da krisi klimatikoa, baita gatazka orokortuak eta guztiz desparekotasunezkoak diren bizi-baldintzak ere.⁴ Neoliberalismoa, heteropatriarkatua, supremazismo zuria eta kolonialismoa natura eta emakumeak, neskak eta genero anitzeko pertsonak zapaltzeko eta esplotatzeko egitura eta iturri sistemikoak dira.⁵ Garapen feministaren eta finantziario klimatikoaren⁶ alde lan egiteak, beraz, gure mundua egituratzen duen sistema ekonomikoa eraldatzea eskatzen du, erauzketa baitu ardatz.

Iparralde globaleko herrialde aberatsen erantzukizuna da karbono-isurien kuota bidezko eta segurua gainditzearen % 92a eta munduko baliabide materialen erabilera gainditzearen % 74a; horien ia erdiak hegoalde globalean erauzten dira, iparralde globalaren kontsumo eta erabilerarako.

Iparralde globaleko herrialde aberatsen erantzukizuna da karbono-isurien⁷ kuota bidezko eta segurua gainditzearen % 92a eta munduko baliabide materialen erabilera gainditzearen % 74a; horien ia erdiak hegoalde globalean erauzten dira, iparralde globalaren kontsumo eta erabilerarako.⁸ Baina, gehiegikeria horiek nabarmen arintzeko eta beren ekintzengatik hegoalde globalari erreparazioak eskaintzeko erantzukizuna beren gain hartu beharrean, herrialde horiek gastu militarra handitzeari ematen diote lehentasuna oraindik ere, eta, ondorioz, larrialdi klimatikoa areagotzen da, eta ekintza klimatikorako nahiz zerbitzu publikoei eusteko beharrezkoak diren funtsak desbideratzen dira.⁹ Egiaz, justu kontrakoa egin beharko litzateke garapen jasangarria finantzatzeko, krisi klimatikoa arintzeko eta giza eskubideak bermatzeko: **finantza-sistemak, merkataritza-sistemak eta nazioarteko inbertsio-sistemak berregituratu, eremu fiskal egokia eta**

1. Itzulpena: AEIOU Traductores Sooc. Coop. Mad.

2. Egile beraren «Bidezko finantziarioa planeta eta bizitza babesteko» testuan oinarritutako artikulua. Testu hori txosten honetan dago jasota: Koherentzia Indizea 2025, Bidezko finantziarioa itxaropenezko etorkizun baterako. <https://www.indicedecoherencia.org/informe-2025/>

3. In *A Feminist and Decolonial Global Green New Deal: Principles, Paradigms and Systemic Transformations* (2021), Bhumika Muchhalak dio: «Ekologia politikoan errotutako ikuspegi feminista batek esan nahi du emakumeak ez direla gizabanako soiltzat hartzen, baizik eta botere-harremanak egituratzen dituen sistematzat hartzen dela generoa. Egiturazko feminismoa funtsezkoa da justizia klimatikoko alternatiba feministak sortzeko [...], zaintzen ekonomian oinarritutako esparru ekonomiko feminista bat sustatuz». https://wedo.org/wp-content/uploads/2022/04/FemEconClimate-ActionNexus_Brief_FemGND_UPDATED-4.7.22.pdf

4. Sanam Amin (2024). *Sistema-aldaketa pertsonentzat eta planetarentzat: Klimari, zorrari eta zaintzari buruzko proposamen feminista dekolonialak*. https://wedo.org/wp-content/uploads/2024/08/ActionNexus_AdvocacyBrief_SanamAmin_ES_FINAL.pdf

5. Feminist Action Nexus for Economic and Climate Justice (2022). *Kontzeptua eta eskaera giltzarriak*. https://wedo.org/wp-content/uploads/2022/05/ActionNexus_KeyDemands_ES.pdf

6. WEDO (2024). *Five Dimensions of Feminist Climate Finance*. https://wedo.org/wp-content/uploads/2024/11/WEDO_FeministClimateFinance_2024.pdf

7. Arimbi Wahono eta Katie Tobin (2024). *Justizia klimatiko eta ekonomikorantz: Joera giltzarrien analisi feminista bat, 2024*. https://economicstrends.wedo.org/wp-content/uploads/2024/12/ActionNexus_TrendsReport2024_ES_v2.pdf

8. Emilia Reyes (2024). *Desazkundearen ertzak: Iparralde globala, sektore kaltegarriak eta aberastasunaren kontzentrazioa*. Desazkundera justizia globalerako, 2. https://wedo.org/wp-content/uploads/2024/08/2.-Directions-of-Degrowth_ES.pdf

9. Arimbi Wahono eta Katie Tobin (2024).

[...] energia berriztagarrietarantzko eta gizarte jasangarrietarantzko genero-justiziadun benetako trantsizioak boterea eraldatu eta birbanaketa-justizia sustatu beharko luke, erregai fosilen industriaren kontrol ekonomikoa beste korporazio-multzo hegemoniko bati berresleitzera soilik mugatu beharrean.

subiranotasun ekonomikoa ziurtatzeko hegoalde globaleko herrialdeetan.¹⁰

Hala ere, gaur egun foro multilateraletan eztabaidatzen ari diren proposamen gehienetan ez zaie behar bezala heltzen ez ingurumen-suntsiketaren, ez despaketotasun ekonomikoen kausa sakon eta sistemikoei. Garapenerako Finantziarioari buruzko Nazioarteko IV. Biltzarra (FfD4, ingelesezko siglak), 2025eko uztailan Sevillan egin zena, aukera kritikoa izango zen egiturazko ikuspegi hori bultzatzen hasteko, justizia ekonomikoaren eta genero-berdintasunaren aldeko erakundeek aspalditik sustatua. Printzipioz, foro hori NBERen babespean deitu zenez, garapenaren finantziarioaz eta gobernantza ekonomiko globalaz erabakiak hartzean estatu kide guztien parte-hartze demokratiko eta inklusiboa bermatuko zela espero zitekeen, ez NDFren, Munduko Bankuaren, ELGAren, G20aren eta G7aren eremu baztertzailaetan bezala. Praktikan, ordea, azken dokumentu huts bat izan da emaitza, eta, hori horrela izanik, alferrik galdu da aldaketa sistemiko baterako FfD4k eman zezakeen aukera.¹¹

Justizia klimatiko eta ekonomikoaren ikuspegi feminista batetik, premiazkotzat jotzen du gure makroekonomia gidatzen duten arauen erreforma integrala egitea, gure ekoizpen- eta kontsumo-sistemak barne, baliabide-erazketan eta hazkunde mugagabearen oinarritutako sistema batetik zaintzak eta gizarte-babesa lehenesten dituen sistema batera

igarotzeko.¹² Egiturazko eraldaketa horrek **genero-justiziadun trantsizio** bat izango luke, erregai fosilik gabeko energia-trantsizio ekitatibo bat barne —baina ez hartara mugatuta—,¹³ baita agenda eraldatzaile bat ere, gai hauekin: **baliabide-justizia eta desazkundera, desmilitarizazioa, erreparazioak** (zor ekologikoagatik, kolonialismoagatik nahiz esklabotzagatik), **zorra barkatzea** eta **justizia fiskala**.

Dokumentu hau alderdi horietako bakoitzaren inguruan gaur egun dagoen pentsamendu feministaren argudioen zirriborro laburra da, hegoalde globaleko analisi feministetan oinarritua nagusiki. Agenda integral hori mundu osoko eskubideetan oinarritutako garapen jasangarria ulertzea sustatzeko funtsezkotzat hartuta, dokumentuaren amaieran ikuspegi labur bat ematen da, azaltzeko benetan nola planteatu beharko litzatekeen **finantziario klimatikoaren egiturazko ikuspegi feminista** bat, egiturazko eraldaketaren ikuspegi horren atal gisa.

Gure makroekonomia osoaren trantsizioa genero-justiziarekin

Langile-mugimenduaren iraganeko eta oraingo analisisetan eta haren aktibismoan oinarrituta, energia berriztagarrietarantzko eta gizarte jasangarrietarantzko genero-justiziadun benetako trantsizioak boterea eraldatu eta birbanaketa-justizia sustatu beharko luke, erregai fosilen industriaren kontrol ekonomikoa beste korporazio-multzo hegemoniko bati berresleitzera soilik mugatu beharrean.¹⁴ Benetakoa eta bidezkoa den trantsizioak egitura kapitalistak eta kolonialak eraldatu eta zuzendu beharko litzateke, eta berriro erdigunean jarri komunitateak eta herrialdeak —eta haietan bizi diren emakumeak, neskak eta genero anitzeko pertsonak—, hegoalde globalean bereziki.¹⁵

Energia-iturri berriztagarrietarantzko trantsizioaren esparruan, gero eta eskari handiagoa dute ibilgailu elektrikoek eta energia garbiek, baita horiek

10. Bhumika Muchhala (2021).

11. Grace Arina (2025). *Feminist Reflections on the Fourth International Conference on Financing for Development*. <https://menafemmovement.org/feminist-reflections-on-the-fourth-international-conference-on-financing-for-development/>

12. WEDO (2024).

13. WEDO (2023). *Gender Just Transition: A Path to System Change*. https://wedo.org/wp-content/uploads/2023/12/WEDO_Just-Transition-Brief_COP28_Nov2023.pdf

14. WEDO (2023).

15. WEDO (2023).

biltegitratzeko behar diren bateriek ere, eta horrek trantsizio hori bultzatzeko beharrezkoak diren «mineralak eskuratzeko norgehiagoka estrategikoa» ekarri du (litioa, kobaltoa eta nikela, esaterako).¹⁶ Aurreikuspenen arabera, 2050erako, trantsizio energetikorako funtsezkoak diren mineralen eskaria % 500 inguru handituko da,¹⁷ inplikazio kezkagarriekin, erauzketa-lekuetatik gertu dauden komunitateentzat batez ere. Litio-meatzaritzako proiektuen % 80 baino gehiago lurralde indigenetan kokatzen dira, eta, askotan, desplazamenduak eta desjabetzeak eragiten dituzte, ia onura esanguratsurik gabe energiarako tokiko sarbideari dagokionez.¹⁸

Egiazkoa eta bidezkoa den trantsizioak bermatu behar du ingurumen-babesak eta giza eskubideen babesak sendoak izango direla, eta industriei aplikatuko zaizkiela benetako kontu-ematearekin, eta, horrez gain, mozkinen gaineko zerga bidezkoak eta sendoak ezarriko zaizkiela, interes korporatiboei boterea kendu eta inbertsioak egin ahal izateko osasunean, hezkuntzan, saneamenduan eta pertsona guztien (batez ere emakumeen, nesken eta genero anitzeko pertsonen) eskubideak betetzeko beharrezkoak diren beste zerbitzu publiko batzuetan.¹⁹

Desazkundera eta baliabide-justizia

Estraktibismo-mota bat beste batez ordeztu beharrean, trantsizio energetikoaren ikuspegi bidezko batek, ingurumen- eta ekonomia-justizia zabalago batekin, sektore batzuetan desinbertitzea eskatuko luke, beste sektore batzuetan inbertitzeko, eta, era horretara, gure planetaren mugak errespetatzeko eta baliabide-banaketarako ereduak deskolonizatzeko aukera izango litzateke.²⁰ **Baliabide-justizia** izeneko kontzeptu horrek lotura estua du **desazkunderaren** proposamenekin: gizartearen erabateko berrantolaketa, ekoizpena eta kontsumoa

Egiazkoa eta bidezkoa den trantsizioak bermatu behar du ingurumen-babesak eta giza eskubideen babesak sendoak izango direla, eta industriei aplikatuko zaizkiela benetako kontu-ematearekin, eta, horrez gain, mozkinen gaineko zerga bidezkoak eta sendoak ezarriko zaizkiela, interes korporatiboei boterea kendu eta inbertsioak egin ahal izateko osasunean, hezkuntzan, saneamenduan eta pertsona guztien (batez ere emakumeen, nesken eta genero anitzeko pertsonen) eskubideak betetzeko beharrezkoak diren beste zerbitzu publiko batzuetan.

modu ekitatiboan murriztuz, gizarteek energia eta baliabide naturalak gutxiago erauz ditzaten, eta, halaber, karbono-emisioak eta kutsadura murrizteko.²¹ Desazkunderaren proposamenek erregai fosilen industrietako desinbertsioa dute abiapuntu. Erregai fosilak ez ugaritzeko tratatu bat babesten dute aktiboki, eta horiek pixkanaka eta modu bidezkoan gainditzea nahi dute, erantzukizun historikoak kontuan hartuta.²²

Desazkunderaren gaineko proposamen feministek gizartea berregituratzearen alde egiten dute, bai gizartea hazkunderaren nagusitasunetik aldentzeko, bai hura birbanaketa ekitatibora eta zaintza-lanen lehenespenera bideratzeko.²³ Egiturazko analisi feministak Estatuaren egitekoa azpimarratzen du makrodinamika kapitalisten eta inperialisten eraldaketan nahiz denboraren erabilera

16. WEDO (2023).

17. Kirsten Hund *et al.* (2020). *Minerals for Climate Action: The Mineral Intensity of the Clean Energy Transition*. Washington: Munduko Bankua. <https://documents1.worldbank.org/curated/en/099052423172525564/pdf/P16627806f5aa400508f8c0bdcba0878a3e.pdf>

18. Arimbi Wahono eta Katie Tobin (2024).

19. WEDO (2023).

20. Emilia Reyes (2024). *Desazkundera aktibismo multilateralerako*, Desazkundera justizia globalerako, 3.

21. Emilia Reyes (2024). *Zer da desazkundera?*, Desazkundera justizia globalerako, 1. <https://wedo.org/wp-content/uploads/2024/08/1>.

22. Emilia Reyes (2024). *Desazkunderaren ertzak: Iparralde globala, sektore kaltegarriak eta aberastasunaren kontzentrazioa*.

23. Diyana Yahaya (2021). *A Feminist Agenda for People and Planet: Principles and Recommendations for a Global Feminist Economic Justice Agenda*. *Feminist Blueprint for Action*. https://wedo.org/wp-content/uploads/2021/06/Blueprint_A-Feminist-Agenda-for-People-and-Planet.pdf

berrorientatzeko eta lanaren sexu-/genero-banaketa berrorekatzeko orduan.²⁴

Desmilitarizazioa

Militarizazioa da herrialdeen politika nazionalen inpaktu globala eraldaketa integral baten beharraren ulermen kolektiboan txertatzea eskatzen duen beste eszenatoki bat. Horrek barne hartzen ditu hala aurrekontu nazionalen osaera izugarri desberdina (iparralde globalean bereziki, baina ez hor bakarrik), nola base militarren ugaritzea (Ameriketako Estatu Batuetakoak nagusiki) hegoalde globaleko lur eta lurraldeetan. Armada estatubatuarraren urteko karbono-aztarna 205 milioi tona CO₂-koa da; eta armada frantsesarena, berriz, 8 milioi tona ingurukoa da, duela hiru urteko datuen arabera.²⁵ Gainera, eragin horiek larriagotu egin dira azkenaldian, Palestinako genozidioaren eta okupazioaren gorakadagatik eta Europako gobernuak gastu militarra handitzera jo dutelako, nazioarteko laguntzetako gastuaren kalterako.

Desmilitarizazioa, beraz, funtsezkoa da krisi klimatikoari aurre egiteko zein komunitateek beren burua eta lurra zaintzerik izan dezaten.²⁶ Militarismoan desinbertitzeak, desazkundearen eta birbanaketa-justiziaren ikuspegi feministekin bat egiteaz gain, aukera emango luke, halaber, zaintzen sektorean eta klima-aldaketaren aurkako jardueretan gehiago inbertitzeko, baita emisioak nabarmen murrizteko ere.²⁷

Erreparazioak

Benetan egiturazkoa den erreforma orok kolonialismoak eta esklabotzak eragindako kalteengatiko erreparazioak ere barne hartu beharko lituzke, eta horrek erreparazioak eta konpentsazioak ekarriko lituzke, bai eta gure egungo sistema globala

Desmilitarizazioa, beraz, funtsezkoa da krisi klimatikoari aurre egiteko zein komunitateek beren burua eta lurra zaintzerik izan dezaten. Militarismoan desinbertitzeak, desazkundearen eta birbanaketa-justiziaren ikuspegi feministekin bat egiteaz gain, aukera emango luke, halaber, zaintzen sektorean eta klima-aldaketaren aurkako jardueretan gehiago inbertitzeko, baita emisioak nabarmen murrizteko ere.

—kolonialismoaren eta esklabotzaren ondarea finkatu eta betikotu baino egiten ez duena— baztertu eta paradigma alternatiboetara jotzea ere.²⁸ Hegoalde globaleko kolonia ohiek hamarkadak daramatzate jasandako bidegabekeriengatik erreparazioak eskatzen. Alabaina, bidegabekeria horiek areagotu baino ez dira egin, COVID-19aren pandemiaren eta zorraren krisiaren gorakadaren eskutik.²⁹

Erreparazioek barne hartuko lituzkete konpentsazio ekonomikoak eta egitura global bidegabeen demokratizazioa, ondare kolonialak irautea ahalbidetu baitute,³⁰ eta, horrez gain, ingurumenaren eta giza eskubideen defendatzaileen babesa eta segurtasuna ere indartu beharko lirатеke.³¹ Erreparazio holistikoen mugimenduak aitorpena, ordaina eta konpentsazioa sustatzen ditu, eta giza eskubideen urraketak ez errepikatzeko bermea ere bai.³² Priya Lukkak ziurtatzen duen bezala, ez errepikatzeko berme horrek munduko finantza-arkitektura guztiz eraldatzea eskatzen du, egiturazko desparekotasunak sortzeari uzteko helburuarekin.³³

24. Emilia Reyes (2024). *Zer da desazkundera?*

25. Daniela Philipson García (2023). *Feminist Interventions: Resisting the Militarization of the Climate Crisis*. WEDO & CFFP. <https://wedo.org/security-for-whom-new-report-on-feminist-perspectives-on-militarism-climate/>

26. Sanam Amin (2024).

27. Daniela Philipson García (2023).

28. Priya Lukka, Sophie Efang eta Jessica Woodroffe (2023). *Reparations as a pathway to decolonization, Briefings, Gender and Development Network*. <https://static1.squarespace.com/static/536c4ee8e4b0b60bc6ca7c74/t/6465097a25d86e0ac4b6b290/1684343164214/Reparations+as+a+pathway+to+decolonisation.pdf>

29. Arimbi Wahono eta Katie Tobin (2024).

30. Arimbi Wahono eta Katie Tobin (2024).

31. Bhumika Muchhala (2021).

32. Bhumika Muchhala (2021).

33. Emilia Reyes (2024). *Desazkundera aktibismo*

Zorra barkatzea

Erreparazio-eskaera asko zorra barkatzeko eskaeren testuinguruan egiten dira, «legez kontrako zor gorrotagarri batzuen ordainketaren aldarean kaltetuak eta sakrifikatuak izan diren eta, gainera, orain krisi klimatikoaren alderik txarrena jasaten ari diren pertsonentzako erreparazio eta justizia» gisa, WOMINek eta CADTMAfriquek sustatutako 2020ko adierazpen batean azaltzen den moduan.³⁴ Bhumika Muchhalak azpimarratzen duenez, erreparazioetan oinarritutako ikuspegi batek aukera ematen du pentsamendua bideratzeko hala justizia klimatikora —galerei eta kalteei dagokienez bereziki—, nola zorraren justiziara, onartzen baitu «garapen-bidean dauden herrialdeen zorraren krisi kronikoak nazioen arteko botere-desparekotasunezko herentzia historiko batetik datozela, eta horrek herrialde horien ekoizteko zein barneko diru-sarrerak izateko ahalmena murriztu duela, aldi berean kanpo-zorra elikatuz». Zorra barkatzeak —justizia ekonomiko eta klimatikoko beste modu batzuekin batera, klima-aldaketaren aurkako borrokaren finantziazio egoki eta ekitatiboa barne— aukera ematen du «hazkundera, industrializazioa, interes komertzialak eta garapenerako funtsen mailegu-emateen interesak lehenetsi dituzten garapen-ereduetatik aldentzeko», Sanam Aminen analisiaren arabera.³⁵

Hamarkadetan zehar, Nazio Batuen babespean zorra birnegoziatzeko mekanismo multilateral bat izan da berronoreka horri ekiteko funtsezko proposamena, hartzekodun guztien zor guztiak barkatzeko eta/edo berregituratzeko bide bat irekitzeko helburuarekin.³⁶ Garapenerako finantziatorako gizarte zibilaren mekanismoaren gaur egungo proposamenak, Eurodad eta beste eskualde batzuetako «DAD» sare kideak buru direla, zor subiranoari buruzko Nazio Batuen esparru-konbentzio bat eskatzen ari dira.³⁷ Zorrari buruzko

negoziazioak argi eta garbi Nazio Batuen babespean kokatuta, eztabaidak eszenatoki demokratiko batean garatzea ziurtatuko litzateke, «herrialde bat, boto bat» printzipioari jarraituz, aro kolonialeko arrastoetan ainguratuta jarraitu beharrean, Bretton Woodseko erakundeak bezala, edo G20 bezalako legez kontrako talde berriek harrapatuta.

Bereziki garrantzitsua da hori. Izan ere, 2024an, klima-aldaketaren aurrean zaurgarrienak diren herrialdeen zorraren zerbitzuaren ordainketak maximo historikoetara hurbildu ziren, txarrenak azken hiru hamarkadetan gutxienez.³⁸ Herrialde horiek munduko zorpetuenen artean daude oraindik ere, eta zorraren zerbitzuaren kostuak funtsik gabe utziko ditu, nahiz eta herrialde horiek izan, hain justu, inpaktu klimatikoetara egokitzeko horiek gehien behar dituztenak.³⁹ 2024an, klima-aldaketaren aurrean zaurgarrienak ziren 50 herrialdeek batez beste beren diru-sarrera publikoen % 15,5 bideratu behar izan zituzten gutxienez kanpo-zorrera, 2010ean halako lau.⁴⁰ Hori gutxi balitz, gero eta zor handiagoak presioa egiten die gobernuei, zor hori erauzketa-industrien hedapenaren bidez finantzatu dezaten, eta horrek larriagotu egiten ditu biodibertsitate-galeraren kausak eta ondorioak eta krisi klimatikoa bera.⁴¹

Justizia fiskala

Bidegabekeria fiskalak hegoaldeak iparraldera egiten den etengabeko aberastasun-transferentzia garbia dira.⁴² Ondorioz, gero eta handiagoa da zorraren krisia, nahiz eta egiaz milaka milioi dolar zor zaizkion hegoalde globalari, iparralde globalak betiketutako

assets.nationbuilder.com/eurodad/pages/4688/attachments/original/1729260440/04_debt-architecture-briefing-ES-oct18.pdf?1729260440

38. Debt Justice (2024). *Debt payments for climate vulnerable countries hit highest level since at least 1990*. https://debtjustice.org.uk/wp-content/uploads/2024/05/Debt-payments-climate-vulnerable-countries_06.24.pdf

39. Arimbi Wahono eta Katie Tobin (2024).

40. Debt Justice (2024).

41. Jessica Dempsey et al. (2024). *Galera esportatzen: Nazioarteko finantza-sistemak nola mugatzen duen biodibertsitatearen etorkizuna*, The Centre for Climate Justice, Climate and Community Project, and Third World Network. <https://climatejustice.ubc.ca/wp-content/uploads/sites/45/2024/07/Exporting-extinction-SP.pdf>

42. Bhumika Muchhala (2021).

multilateralerako.

34. CATDM & WOMIN (2020): *Deia Afrikako Batasunari, estatuburu afrikarrei, nazioarteko finantza-erakundeei, mailegu-erakunde txinatarrei eta hartzekodun pribatuei, zor afrikarra guztiz eta baldintzarik gabe ezeztatzeke!* https://drive.google.com/drive/folders/1q4jdg3rONXWbdSfKQJZRm_Wf28yRf-qY

35. Sanam Amin (2024).

36. Bhumika Muchhala (2021).

37. Iolanda Fresnillo et al. (2024). *Zor Subiranoari buruzko Nazio Batuen Esparru Konbentzioa: Zorraren arkitektura berri bat eraikitzea justizia ekonomikorako*, Eurodad. <https://>

Hortaz, justizia fiskala funtsezkoa da pertsonen zein planetaren ongizatea babesten duten eskubideetan oinarritutako ekonomia feminista eta dekolonialak eraikitzeko ahalegin kolektiborako, galdutako diru-sarrera fiskalak jarduera ekonomikoa garatzen den herrialdeetan geratuko direla bermatuz, eta, horretarako, enpresei zigorak jarriko zaizkie arau-haustek egiteagatik.

esklabotzagatik, kolonialismoagatik eta ingurumena suntsitzeagatik.⁴³ Legez kontrako finantza-fluxuak direla-eta —zerga-ihes, -desbideratze eta -abusua barne, baita paradisu fiskaletan aberastasuna pilatzea ere—, gero eta txikiagoak dira hegoalde globaleko herrialdeen gastu publikorako erabilgarri dauden diru-sarrerak. Adibidez, urtero 347 600 milioi dolar estatubatuar (USD) galtzen dira, korporazio multinazionalak beren irabazien zati handi bat atzerrira desbideratzen dutelako zerga gutxiago ordaintzeagatik; zerga-abusu globalagatik urtero galdutako 492.000 milioi USDen guztizkoaren bi heren dira horiek.⁴⁴ Afrikan soilik, 89.000 milioi dolar inguru galtzen dira urtero legez kontrako finantza-fluxutan, eta iturri komertzialetakoak dira gehienak, zerga-abusuak barne.⁴⁵

Hortaz, justizia fiskala funtsezkoa da pertsonen zein planetaren ongizatea babesten duten eskubideetan oinarritutako ekonomia feminista eta dekolonialak

eraikitzeko ahalegin kolektiborako,⁴⁶ galdutako diru-sarrera fiskalak jarduera ekonomikoa garatzen den herrialdeetan geratuko direla bermatuz, eta, horretarako, enpresei zigorak jarriko zaizkie arau-haustek egiteagatik.⁴⁷ Bhumika Muchhalak «errekuperazio dekolonial»⁴⁸ gisa planteatuta, eskubideetan oinarritutako ekonomiaren funtsezko alderdi bat da justizia fiskala, eta honela definitzen dute CESRek eta Christian Aidek: «Loratzen ari den planeta batean pertsona guztiak duintasunez bizi ahal izateko beharrezkoak diren baldintza materialak eta gizarte- eta ingurumen-baldintzak bermatuko lituzkeena».⁴⁹

Nazioarteko lankidetzak fiskalari buruzko Nazio Batuen esparru-konbentzio bat sortzen hasteko NBereen Batzar Orokorak egin berri duen akordioa urrats erabakigarria da araudi-ingurunea indartzeko, hau da, mugaz gaindiko zerga-abusuekin amaitzeko, legez kontrako finantza-fluxu guztiak prebenitzeko eta aberastasunaren eta irabazien gaineko gutxieneko zerga globalak ezartzeko. Konbentzio fiskal baterako etorkizuneko akordio horrek —2027ra arte luzatuko da haren lanketa— hitzarmen bilateral eta multilateralen egungo sare inkoherente eta konplexua baztertu eta haren ordean esparru global koherente bat izateko bidea emango luke.⁵⁰ Halere, iparralde globaleko herrialdeek gogor eusten diote *statu quo*ari, eta ez dute erraz amore emango: Trumpen administraziopean dagoen AEBko Gobernuak otsailean jada irten zen

43. ActionAid International (2025). *Who Owes Who? External debts, climate debts and reparations in the Jubilee year*. <https://actionaid.org/sites/default/files/publications/FINAL%20Who%20Owes%20Who%20-%20FINAL%20COPY%20FOR%20WEBSITE%20-%202025th%20Feb%202025.pdf>

44. Mark Bou Mansour *et al.* (2024). *Justizia fiskalaren egoera 2024*, Tax Justice Network. <https://taxjustice.net/wp-content/uploads/2024/11/State-of-Tax-Justice-2024-Spanish-Tax-Justice-Network.pdf>

45. UNCTAD (2020). *Tackling Illicit Financial Flows for Sustainable Development in Africa: Economic Development in Africa Report 2020*. New York: United Nations Publications. https://unctad.org/system/files/official-document/aldcafrica2020_en.pdf

46. Arimbi Wahono (2025). *Rights-based tax justice: A framework for a progressive, feminist, ecologically just, and decolonial approach to taxation*, WEDO, Financial Transparency Coalition, Center for Economic and Social Rights (CESR), Shared Planet. https://wedo.org/wp-content/uploads/2025/03/WEDO_AdvocacyBrief_Rights-Based-Tax-Justice.pdf

47. Bhumika Muchhala (2021).

48. Bhumika Muchhala (2021).

49. Kate Donald (2020). *A Rights-Based Economy: Putting people and planet first*, Christian Aid, Center for Economic and Social Rights. <https://www.cesr.org/sites/default/files/Rights%20Based%20Economy%20briefing.pdf>

50. Kate Donald (2020).

[...] fiskalitate ekologikoa fiskalitate progresibo, feminista eta dekolonial baten alderdiekin batera hartu behar da kontuan beti, duela gutxi egindako txosten batean zirriborratu den bezala. Eskubideetan oinarritutako esparru fiskal batek ekitatea, irisgarritasuna eta birbanaketa sustatu behar ditu, baina printzipio horietako bat ere ez da lortu behar beste batzuen kontura; hau da, esate baterako, kutsatzaileei edo berotegi-efektuko gasen isurleei zergak ezartzeko ahaleginek ez diete kalte egin behar diru-sarrerara txikiak izanik lan egiteko eta bizirauteko erregaia behar duten pertsonen.

prozesutik,⁵¹ eta Europar Batasuneko estatu kideak etengabe dabilta hura boikotatu eta ahuldu nahian.⁵²

Nolanahi ere, NBERen konbentzio fiskal baten negoziazio hauek oso erabakigarriak izatea espero izan dezakegun arren, fiskalitate ekologikoa fiskalitate progresibo, feminista eta dekolonial baten alderdiekin batera hartu behar da kontuan beti, duela gutxi egindako txosten batean zirriborratu den bezala.⁵³ Eskubideetan oinarritutako esparru fiskal batek ekitatea, irisgarritasuna eta birbanaketa sustatu behar ditu, baina printzipio horietako bat ere ez da lortu behar beste batzuen kontura; hau da, esate baterako, kutsatzaileei edo berotegi-efektuko gasen isurleei zergak ezartzeko ahaleginek ez diete kalte egin behar diru-sarrerara txikiak izanik lan egiteko eta bizirauteko erregaia behar duten pertsonen. Horrela, zergetatik edo dirulaguntza desegokiak ezabatzetik

datozen diru-sarrerak gizarte-babes unibertsalera bideratu beharko lirakeke, bidezko trantsizio baten alde eginez, deskolonizazioaren, feminismoaren, progresibitatearen eta ingurumen-justiziaren printzipioekin bat.⁵⁴

Planteamendu horrek ere desazkundera garamatza berriro, eta gogorarazten digu aberatsei zergak ezartzea ez dela nahikoa. 2024an argitaratutako hiru artikuluko sorta batean, hau azaltzen digu Emilia Reyesek: «Justizia fiskala sistemak aldatzeko estrategia zabalago baten parte moduan hartu behar da, beste osagai batzuekin batera, eta onartu behar du bilioidun pertsonak egotea mehatxu bat dela planetako bizitzarako».⁵⁵ «Aberastasunari % 2ko zerga bat ezartzeko eta gainerakoa bere horretan uzteko proposamena,» jarraitzen du Emiliak, «pobrezia desagerrarazteko edo zerbitzu publikoak finantzatzeko behar bezainbeste diru bideratzea lortzeko, ez da okerra bakarrik, oreka ekologikoa suntsitzearen konplize ere bada».⁵⁶

Finantziario klimatiko feminista

Krisi klimatikoa betikotzen duten egitura ekonomiko global antidemokratikoen testuinguruan, baita mundu osoko desparekotasunaren alderdi anitzen testuinguruan ere, finantziario klimatikoa funtsezko betebeharra da iparralde globaleko herrialdeentzat, legez loteslea izateaz gain, Klima Aldaketari buruzko NBERen Esparru Konbentzioaren arabera.⁵⁷ Finantziario klimatikoa —klima-aldaketa arintzeko, egokitze eta haren ondorioz izandako galera eta kalteei erantzuteko beharrezkoak diren funtsak ematea— ezinbestekoa da, baina giza eskubideen eta genero-berdintasunaren inguruan diseinatu eta gauzatu behar da, edo ez da izango gai krisi handi honi aurre egiteko.⁵⁸

51. Alexandra Wenzel (2025, otsailak 4). *Gizarte zibilak herrialdeak premiatzen ditu NBERen Nazioarteko Zerga Lankidetzari buruzko Konbentzioaren negoziazioetan aurrera egitera* [prentsa-oharra], Globaltaxjustice.org. <https://globaltaxjustice.org/news/as-u-s-leaves-the-un-tax-treaty-negotiations-civil-society-calls-on-countries-to-continue-championing-the-historic-process/>

52. Kudzai Mataba eta Elisângela Rita (2025, otsailak 14). *UN Convention on Tax: What happened at recent negotiations, and what's next?* International Institute for Sustainable Development (IISD). Iisd.org. <https://www.iisd.org/articles/explainer/united-nations-international-tax-convention-negotiations>

53. Arimbi Wahono (2025).

54. Arimbi Wahono (2025).

55. Emilia Reyes (2024). *Desazkunderaren ertzak: Iparralde globala, sektore kaltegarriak eta aberastasunaren kontzentrazioa*.

56. Emilia Reyes (2024). *Desazkunderaren ertzak: Iparralde globala, sektore kaltegarriak eta aberastasunaren kontzentrazioa*.

57. Arimbi Wahono eta Katie Tobin (2024).

58. WEDO (2024). *Five Dimensions of Feminist Climate Finance*. https://wedo.org/wp-content/uploads/2024/11/WEDO_FeministClimateFinance_2024.pdf

WEDOn, genero-berdintasuna lortzen eta klima-aldaketaren kausa sakonei eta haren ondorioei heltzen lagunduko duen finantziazio klimatiko feminista bat ulertzeko eta ezartzeko beharrezkoak diren bost alderdi zirriboratu ditugu. Genero-berdintasuna, giza eskubideak, kontu-ematea eta gardentasuna sustatzeko, finantziazio klimatiko feministak honelakoa izan behar du:

1. **Asmo handikoa, egokia eta aproposa:** gaur egungo funtsak baino nabarmen handiagoa; behar klimatikoaren eskalara eta sakontasunera egokitua, genero-egoeren arabera; eta aproposa benetan eraldatzailea den ekintza klimatikoa errazteko, mekanismo eta sistema global zein nazionalak eta haien mugak behar bezala baloratu ondoren.
2. **Irisgarria** generoaren eta justizia klimatikoaren arteko elkargunean lan egiten duten oinarritzko mugimendu, erakunde komunitario eta herri indigenentzat, zenbait bidetatik, zuzeneko sarbidea barne.
3. **Eraldatzailea genero-arloan:** klima-aldaketaren funtsezko kausei eraginkortasunez eta modu jasangarrian helduko diena, eta giza eskubideen esparru baten baitan genero-berdintasuna sustatuko duena.
4. **Arduratsua:** eskubideen titularrentzat ulergarria, bere prozesuen gardentasunari esker, eta kalte-erreparaziorako prozesu eta mekanismoak dituen.
5. **Sistemikoki eraldatzailea:** estraktibismo kapitalistari, inperialismoari eta neokolonialismoari, militarismoari eta patriarkatuari helduko diena, krisi klimatikoaren sakoneko kausa gisa; eta, aldi berean, benetako soluzioetatik aldentzen gaituzten soluzio faltsuak baztertuko dituen, frogatu gabeko teknologietan oinarritzen direnak eta/edo herri indigenen aurretiko baimen libre informatuaren eskubidea urratzen dutenak.⁵⁹

Amaierako gogoetak

FfD4ko azken dokumenturako negoziazioetan, hegoalde globaleko gobernu batzuek (zenbait negoziazio-bloke barne, hala nola Afrikar Taldea eta Uharteetako Estatu Txikien Aliantza) aldaketa sistemikoak eskatu zituzten NDFren gobernantza

Era horretan, eskaera funtsezko eta sistemikoenak ezabatu edo diluitu egin ziren azken testuan, hein handi batean iparralde globaleko herrialdeen mugimenduen erruz, Erresuma Batua eta EB barne. Azken dokumentua ateak itxita negoziatu zen, eta 2025eko ekainean zabaldu zen, *Sevillako Konpromisoa* izenburupean, Biltzarra bera hasi aurretik. Dokumentuan ekintzarako egiten diren deiak ez dira oso suspergarriak. Zehazki, «aurrerapenei buruz informatzeko» eta «funtsezko eztabaidetan sakontzeko» baino ez zaie eskatzen herrialdeei, konpromiso lotesle gutxiarekin eta finantziazio pribatuarekiko mendekotasun nabarmenarekin.

eta Munduko Bankua, zor subiranoa, kreditu-kalifikazioko agentziak, igorpen-eskubide bereziak eta garapenaren finantziazioa oinarritzen diren ekitaterik ezean, justiziaren aldeko mugimenduek eta gizarte zibilak aspalditik planteatutako aldarrikapenekin bat.⁶⁰ Baina iparralde globaleko herrialdeek eskaera horietako gehienak saihestea lortu zuten, eta erreforma arinak baino ez zituzten ahalbidetu, egiten ari diren ahaleginak bikoiztea eragozteko aitzakiarekin.⁶¹

Era horretan, eskaera funtsezko eta sistemikoenak ezabatu edo diluitu egin ziren azken testuan, hein

60. AFRODAD (2025, ekainak 25). *Calling for an ambitious outcome document for FfD4 in fixing Africa's debt crisis*. Afrodad.org. <https://www.afrodad.org/news-events/articles/calling-ambitious-outcome-document-ffd4-fixing-africas-debt-crisis>; FfD4 Civil Society Forum (2025). *Declaration from the FfD4 Civil Society Forum*. <https://www.dataocms-assets.com/120585/1751273611-forum-declaration.pdf>

61. Maria José Romero eta Jean Saldanha (2025). *Fourth International Conference on Financing for Development exposes continued lack of commitment to address systemic issues*. Bretton Woods Project. <https://www.brettonwoodsproject.org/2025/07/fourth-international-conference-on-financing-for-development-exposes-continued-lack-of-commitment-to-address-systemic-issues/>; AFRODAD (2025, ekainak 25).

59. WEDO (2024). *Five Dimensions of Feminist Climate Finance*.

handi batean iparralde globaleko herrialdeen mugimenduen erruz, Erresuma Batua eta EB barne. Azken dokumentua ateak itxita negoziatu zen, eta 2025eko ekainean zabaldu zen, *Sevillako Konpromisoa* izenburupean, Biltzarra bera hasi aurretik.⁶² Dokumentuan ekintzarako egiten diren deiak ez dira oso suspergarriak. Zehazki, «aurrerapenei buruz informatzeko» eta «funtsezko eztabaidetan sakontzeko» baino ez zaie eskatzen herrialdeei, konpromiso lotesle gutxirekin eta finantziazio pribatuarekiko mendekotasun nabarmenarekin.⁶³

Garapenerako eta justizia ekonomikorako finantziazioarekin lotutako prozesu multilateralek, finantziazio pribatuaren fantasiari eusten jarraitu beharrean, krisi globalei aurre egiteko beharrezkoak diren aurrerapenen ulermen integralean oinarritu

beharko lukete. Krisi global horien artean daude klima- eta ingurumen- asaldura larriak, baina baita emakumeak, genero anitzeko pertsonak eta egiturazko beste marjinazio-mota batzuen biktima diren beste pertsona batzuk azpiratzen tematutako autoritarismoaren gorakada ere. Horrelako ikuspegi sistemiko batek justizia ekonomiko eta klimatiko feministaren arloko neurri ausartak babestu ahal izango lituzke. Mundu osoko herri-mugimenduetan eta giza eskubideen defendatzaileengan jartzen badugu arreta, elkartasunezko eta elkarri laguntzeko ekonomiak eraikitzeko nahiz herritarren lurak eta eskubideak austerizidiotik, estraktibismotik eta militarismotik babesteko egiten duten lanean, justizia ekonomikoa, justizia ekologikoa eta genero-justizia nagusi diren etorkizun kolektibo bat imajinatu ahal izango dugu. ■

62. María José Romero eta Jean Saldanha (2025); AFRODAD (2025).

63. Nazio Batuak (2025). *Sevillako Konpromisoa*, A/CONF.227/2025/L.1; Talaat eta Katie Tobin (2025, abuztuak 12). *Feministak finantza-bidegabekeriari aurre egiten FfD4n*. Menafemmovement.org., <https://menafemmovement.org/feminists-confront-financing-injustice-at-ffd4/>

Myriam Vander Stichele*Akademiko elkartua, Transnational Institute*

Nazio Batuen Erakundeak (NBE) garapenerako finantziarioari buruz egindako biltzarrean (Espainia, 2025eko uztaila), klima-aldaketari buruz NBEk urte horretan bertan egindako biltzarrean bezala (COP30, Brasil, azaroa), ahalegin diplomatikoek ez dute nahikoa diru bildu hauek finantzatzeko: trantsizio energetikoa, klima-aldaketa arintzeko eta hartara egokitzeko berehalako neurriak, bidezko garapen jasangarria mundu osoan, eta ekintza klimatiko eta soziala oztopatzen ari den zorraren zama handiaren arindua. Funts publikoen eskasiarekin kontraste nabarmenean, finantza pribatuak ugaritasunean itotzen dira, burtsa-merkatuek markak hausten dituzte teknologia-konpainia handietan kontzentratutako balorazio altuekin, pertsona ultra-aberatsen kopurua hazten ari da desparekotasunarekin batera, eta espekulaziotik sortutako gero eta diru gehiago doa kriptodiruari mundurantz, nahiz eta aldakortasunak galera izugarriak eragin ditzakeen.

Beraz, funtsezko zerbait huts egiten ari da. Finantza-sistema —486,4 bilioi («b») dolar estatubatuarretan (USD) zenbatetsia, 2023 amaieran—² leheneratzen zaila dirudien norabide oker bat hartzen ari da. Kontua da non adostu beharko liratekeen nazioarte-mailako aldaketak, finantza-sektore pribatua pertsonen eta planetaren zerbitzura jar dadin, eta ez bere buruaren zerbitzura soilik, gaur egun gertatzen ari den bezala.

Finantza-sektorea, ukiezina NBErentzat

Lehenik eta behin, mendebaldeko herrialdeek ez dute uzten NBEren foroetan funts pribatuak arautzeko erabaki lotesleak hartzen. Erabaki horrek UNCTADen³ 1992ko biltzarrean du jatorria.

Eta jarrera hori defendatzen jarraitu dute, baita 2007-2009ko finantza-krisi handiaren ondoren ere. Ondorioz, beste foro batzuetara eraman da zorraren krisia, nahiz eta haietan zorpetutako herrialde asko ez dauden edo boterarik ez duten, hala nola G-20ra, NDFra, ELGA / Parisko Klubera eta abar. Horietako inorez dago prest edo ez da gai banku pribatuei eta bonu subiranoen edukitzaileri zorraren berregituraketa ezartzeko. Nazioarteko Finantzen Institutuaren bidez (IIF, ingelesezko siglak), zor pribatuaren edukitzaile horiek beti lortzen dute eserleku on bat mahai ofizialean, izan ditzaketen finantza-galeren aurrean beren interesak defendatzeko. Eta IIFko kideak uzkur agertu ohi dira berregituraketako negoziazio nazionaletan zorra berregituratzeko edo barkatzeko, eta batzuetan ez dute fede onez negoziatzeko sistema ezarrikerik ere. NBEen zorrari buruzko aditu-talde bat izateko erabakia, zorra berregituratzeko soluzioak bilatuko dituen, gizarte zibilaren aktibismoari esker lortu da hein handian; aldiz, zor subiranoari buruzko esparru-konbentzio bat sortzea, NBErena halaber, oraindik ere erronka bat da errealitate bat baino gehiago. Beraz, nazioartean, finantza-sektore pribatuaren erregulazioa mundu-mailako borondatezko arauen bidez baino ez da gauzatzen ari, adibidez, Basileako Banku Ikuskapenerako Batzordean adostutakoen bidez, baina hegoalde globaleko herrialde askok ez dute parte hartzen hor hartzen diren erabakietan. Aitzitik, banku eta inbertitzaile pribatu globalak eta horien kapitala ia askatasun osoz sartu eta atera daitezke herrialde horietatik, merkataritza eta inbertsio libreko akordio lotesleetan oinarrituta.

Funts pribatuak bideratzeko erregulaziorik eza diruaren esleipen desegokia eragiten ari da

Bigarrenik, mendebaldeko herrialdeak blokeatzen ari dira kapital pribatua interes publikoen finantziariorantz

Konferentzia: <https://unctad.org/es>

1. Itzulpena: AEIOU Traductores Sooc. Coop. Mad.

2. Financial Stability Board (2024). *Global Monitoring Report on Non-Bank Financial Intermediation 2024*, FSB. <https://www.fsb.org/uploads/P161224.pdf>

3. Merkataritzari eta Garapenari buruzko Nazio Batuen

bideratuko duen erregulazio loteslearen ezarpena. Mendebaldeko gobernu eta finantza-agintari gehienek oraindik ere uste dute kapitala esleitzeko metodorik onena «independentzian» datzala, hau da, sektore pribatuak berak erabaki behar duela kapitalen merkatu librean, interes pribatuak orekatu eta autozuzendu egiten direla uste baita. Hala ere, kapital-merkatuetako parte-hartzaile guztiek eta sektore pribatuak bere osotasunean berehalako arriskuak saihesteko eta epe laburrean ahalik eta itzulkin edo errentagarritasun handiena lortzeko erabakiak hartzeko joera dute.

Horren ondorioa da kapitalaren esleipen oso desegokia egiten ari dela. Premiazko interes publiko batzuk, hala nola klima-aldaketa arintzea edo zorra berregituratzea, ez dira finantziarioa lortzen ari, arduradunek —publiko zein pribatuak— oraindik ez dutelako berehalako finantza-galerarik ikusten horrekin lotuta. Baina, epe luzera, ekonomiari eta finantza-sektoreari eragiten dieten krisi klimatikoek eta gero eta handiagoak diren gizarte-arazoek eta desparekotasunak finantza-krisi handia eragin dezakete.

Gogoratzen al duzue Glasgown egin zen COP26 biltzarra (2021)? Finantza-sektoreak promesa ikusgarriak egin zituen klima-aldaketa arintzen laguntzeko, eta Zero Emisio Garbietarako Glasgowko Finantza Aliantza sortu zen (GFANZ, ingelesezko siglak). Finantza-produktu berrien eta borondatezko arauen aukera zabala ezarri zen ingurumen-, gizarte- eta gobernantza-irizpideak finantzatzeko edo integratzeko (ESG, ingelesezko siglak), baina haiek aplikatzeko derrigortasunik gabe. Praktikan, *greenwashing* deritzona gertatu zen asko ('irudi-garbiketa berdea'), eta gizarte-irizpideak (ESGko S letra) inoiz ez zuten benetan barne hartu zorra berregituratzea edo barkatzea. Egiaz, klima-aldaketak finantza-aktiboen balioan («hondoa jotako aktiboak») eragin ez zezan saiatzen jarri zen arreta handiena. Laster, finantza-sektorea ohartu zen «finantza jasagarriak» ez zirela finantza tradizionalak bezain errentagarriak. 2025ean, GFANZ desegin zuten kideek beraiek, baita beren banku-elkarteak eta aktibo-kudeatzaileen elkarteak ere, eta kide ohi batzuk finantziario klimatikoaren aurka presioa egiten ere hasi ziren.

Finantza-lobbya zorra berregituratzearen edo barkatzearen aurka agertu da modu sutsu eta

[...] mendebaldeko herrialdeak blokeatzen ari dira kapital pribatua interes publikoen finantziariorantz bideratuko duen erregulazio loteslearen ezarpena. Mendebaldeko gobernu eta finantza-agintari gehienek oraindik ere uste dute kapitala esleitzeko metodorik onena «independentzian» datzala, hau da, sektore pribatuak berak erabaki behar duela kapitalen merkatu librean, interes pribatuak orekatu eta autozuzendu egiten direla uste baita. Hala ere, kapital-merkatuetako parte-hartzaile guztiek eta sektore pribatuak bere osotasunean berehalako arriskuak saihesteko eta epe laburrean ahalik eta itzulkin edo errentagarritasun handiena lortzeko erabakiak hartzeko joera dute.

manipulatzailan⁴; izan ere, sektorea ez dago prest epe laburrean finantza-galerak xurgatzeko, nahiz eta horrek epe luzera soluzioak eman litzakeen herrialde zordunentzat, haietan bizi diren herritarrentzat eta ekintza klimatikorako, baita finantza-sistemarentzat berarentzat ere. Oraindik ere diru asko irabazten jarraitu daiteke zorrarekin. Hona hemen zorrarekin lotutako inbertsio-funtsen errentagarritasuna erakusten duen adibide bat: iShares J.P. Morgan USD Emerging Markets Bond ETF⁵ izeneko funtsak —»merkatu emergenteetako» hainbat bonu subirano interes-tasa altuan erosita BlackRockek sortutako 15 200 milioi USDko inbertsio-funts bat— hiru urtean % 11,9rainoko hazkundea lortu du bere bezero aberatsentzako guztizko errendimenduan, dibidenduak hilero banatuta eta funtsaren

4. M. Vander Stichele (2021). *The IIF and debt - How the Institute of International Finance lobbies to prevent private debt relief for developing countries*. Amsterdam: SOMO <https://www.somo.nl/the-iif-debt-relief/>: IIFk modu anbiguoan argudiatu du zorra ordaintzen jarraitzea, berez, gainzorpetutako herrialdeen mesederako dela, finantziario pribatu gehiago izaten jarraitzeko aukera ematen baitie.
5. <https://www.ishares.com/us/products/239572/ishares-jp-morgan-usd-emerging-markets-bond-etf>, azken kontsulta 2025eko abenduaren 15ean.

kudeatzailearentzako komisio oparoekin. Horrelako funtsetako bonuak ordaintzeko ahaleginean ari diren herrialdeek, beraz, BlackRockek eta beste funts-kudeatzaile batzuek zorra berregituratzeko duten erreparoa dute oztopo. Oro har, azken ikerketek erakusten dutenez, kalkulatu da BlackRockek kudeatutako inbertsio-funtsek gutxienez 2 100 milioi USDko irabazia lortu dutela zor-krisian dauden edo halako batean sartzeko arrisku handia duten herrialdeek jaulkitako bonuetatik. «Goldman Sachsek kudeatutako funtsek 900 milioi USD lortuko dituzte, eta JP Morganek kudeatutakoek, berriz, 700 milioi inguru. Kalkuluen arabera, UBSk eta PIMCok kudeatutako funtsek 500 milioi USD inguru lortuko dituzte».⁶

Gaur egun bankuaz kanpoko sektorea kudeatzen ari den 238,8 bilioitik gorako USDak (aktibo-kudeatzaileak, estaldura-funtsak, pentsio-funtsak, etab.) eta bankuetan gordailututako 188,7 bilioi USDak⁷ ez dira erabiltzen ari, hain justu, gizarte-eta ingurumen-arazoak konpontzen laguntzen duten gaitan. Aitzitik, diru horren zati bat izaten ari den erabilera larriagotzen ari da klima-aldaketa eta horrek berekin dakartzan ingurumen- eta gizarte-arazoak. Parisko Akordioaz geroztik (2016-2024), munduko 65 banku handik krisi klimatikoa bultzatu dute, erregai fosilekin zuzenean lotutako proiektu, azpiegitura eta enpresei emandako maileguen bidez —eta haien akzioak eta bonuak jaulkita—, 7,9 bilioi USD guztira. Gainera, 2024an, erregai fosilen enpresen akzio eta bonuetan egindako inbertsioak 5,1 bilioi USDra iritsi ziren.⁸ Kopuru horretatik, 1,23 bilioi USD lau aktibo-kudeatzaile handienei zegozkien: BlackRock, Vanguard, State Street eta Fidelity. Lau finantza-kudeatzaile nagusi horiek munduan burtsan kotizatzen duten ia enpresa guztien akzioak eta bonuak dituzte, eta, horrenbestez, haien norabidean

eragin dezakete, botoa emanez edo bertan inplikatu, eta, azkenaldian, klima errespetatzen duten enpresa-estrategien aurka egiten ari dira. Kotizatutako 1 200 enpresa handienek, finantza-sektorea barne, 2024an 2 bilioi USD baino gehiago ordaindu zizkieten beren akziodun aberatsei, eta, hala, desparekotasun-krisi globala areagotu zen. Bien bitartean, NBERen Garapen Jasangarrirako Helburuak betetzea gero eta urrunago dago, urteko finantziazio-defizita 4 bilioi USDkoa delako.⁹

Eta aurrera egiten badugu, urrats txikiak eginez bada ere?

Borondatezko neurriek funtzionatu ez dutenez, beharrezkoa izango da gobernuei, finantza-agintariei eta finantza-sektoreari ikusaraztea kapitalen esleipen libreko eta mugimendu libreko sistema bati hamarkadatan eman dioten babes handia ez dela ari laguntzen gaur egungo zein etorkizuneko ingurumen-eta gizarte-krisiei konponbidea ematen. Baina, bai iraganean, bai gaur egun, zenbait herrialdek, Indiak eta Txinak esaterako, nahikoa frogar eman dute egiaztatzeko maileguak eta inbertsioak bideratzeak mesede egin diezaiekeela ekonomiarik eta herritarrei, batez ere zentzuz eta modu demokratikoan egiten bada. Horrek arriskuak murrizteko egungo politikek baino emaitza hobeak eta bidezkoagoak emango lituzke. Gogoratu dezagun politika horiengatik finantza-sektorea dirulaguntzak edo bermeak jasotzen ari dela zergadunon dirutik, proiektu jasangarriak finantzatzeko helburuarekin. Adibidez, mundu-mailan, bankuak, aktibo-kudeatzaileak eta beste inbertitzaile instituzional batzuk behartu beharko lirateke erregai fosilen enpresei egiten dieten finantziazioaren zati bat ordezkari dezaten urtero, klimarekiko erresilienteak diren enpresei, proiektu klimatikoek (ofizialei) eta etxean hartzeko neurri klimatikoek funtsak esleitzuz, irabazi-marjina txikiekin edo galerak xurgatzeko motelgailuetara joz. Eta «klimarekin lotutako jardueren» definizioan sartu beharko litzateke hegoalde globaleko herrialdeei zorra

6. *How private investors are making billions from countries in debt*, The Independent, 2025eko abenduak 20, <https://www.independent.co.uk/news/world/africa-climate-debt-development-aid-b2881957.html>

7. Financial Stability Board (2024). *Global Monitoring Report on Non-Bank Financial Intermediation 2024*, FSB, <https://www.fsb.org/uploads/P161224.pdf>; 2023ko amaierako datuak.

8. Moira Birrs *et al.* (2025). *Banking on Climate Chaos: Fossil Fuel Finance Report 2025*, Banking on Climate Chaos (BOCC), <https://www.bankingonclimatechaos.org/>; Urgewald (2024). *Investing in climate chaos: Fossil Fuel Investment Report*, <https://investinginclimatechaos.org/reports>

9. Mohieldin, M., Gentiloni, P., Manuel, T., & Wang, Y. (2025, apirilak 2). *Zorrerako NBERen ekimen berria desberdina da*. Project Syndicate, <https://www.project-syndicate.org/commentary/developing-world-debt-crisis-un-expert-group-solutions-by-mahmoud-mohieldin-et-al-2025-04/spanish>

barkatzea, neurri klimatikoak hartzeko gaitasuna murrizten ari baitzaie.

Berez, finantza-sistema eta -sektore osoa guztiz berregituratu beharko litzateke, baina gaur egungo giro geopolitikoa ikusita —gizarte zibilak zorraren eta garapenaren, ekintza klimatikoaren eta garapen jasagarriaren arloan egiten dituen eskaerez gain—, baliagarria izan liteke zehatzagoak diren urrats hauek ematearen aldeko deia ere egitea:

1. Neurri globalak hartzeko presioa handitze aldera, normalizaziorako nazioarteko erakundeak (hala nola Basileako Banku Ikuskapenerako Batzordeak, Finantza Egonkortasunerako Kontseiluak eta Balore Batzordeen Nazioarteko Erakundeak —IOSCO, ingelesezko siglak—)¹⁰ ebaluatu beharko lukete, finantza-azpisektore bakoitzean, nola zorra barkatzeak eta klimarekin eta garapen jasagarriarekin lotutako neurriak hartzeak onurak ekartzen dituen epe luzera (erresistentzia-proben bidez, etorkizuneko eszenatokien bidez —Network on Greening the Financial Systemek jada eginak, borondatezkoak—, finantza-egonkortasunaren ebaluazioak epe luzera, gaur egungo hiru urteetatik harago, eta galerak xurgatzeko ahalmena, akziodunei dibidendu gutxiago banatuz). Gainera, erakunde horiek ahalegin eta dei gehiago egin beharko lituzkete beste finantza-krisi bat saihesteko, horrek ondorio suntsitzaileak izango lituzkeelako hegoalde globalean.
2. Kapital-fluxuak birbideratzen hasteko eta espekulatzaileak dirua pilatu ez dezaten, honako neurri hauek eskatu beharko lirateke:

- Dibidenduak zergapetzea eta akzioen berrerosketa debekatzea, bereziki hegoalde globalean zergarik ordaintzen ez duten eta/edo krisi klimatikoa elikatzen ari diren enpresen kasuan.
- Hegoalde globaleko herrialdeetako banku zentrali uztea eta laguntzea kapital espekulatiboaren sarrera- eta irteera-fluxuak kudeatzen.
- Bidezko trantsizio baten atal gisa, argi eta garbi identifikatzea finantza-sektoreko zer alderdik, laxoegi araututa, kalte egiten dioten trantsizio horri (adibidez, putre-funtsak, estaldura-funtsak, aktibo-/funts-kudeatzaileak, inbertsio-funts pribatuak, maiztasun handiko negoziazioa, etab.) eta zer aktibo ez diren finantzatu behar (esate baterako, legez kontrakoa eta jasanezina den zorrerako tresnak, erregai fosilen sektoreko akzioak eta bonuak, inpaktu jasanezinak ezkutatzen dituzten finantza-egitura konplexuak). Halaber, finantza-eragile horien kontratuak arautzen dituzten Erresuma Batuko eta New Yorkeko arauak aldatu behar dira, zorraren aurkako ekintzaileak eskatzen ari diren moduan, zorra barkatzea eta berregituratzea errazteko, eta erregai fosilekin lotuta «hondoa jotako aktibo» bihurtu diren akzio eta bonuengatik konpentsaziorik ordaindu behar ez izateko.

Gaur egungo testuinguru geopolitikoa eta finantza-ezegonkortasuna ikusita, gizarte zibilak jarraitu behar du funtsezko arazoak salatzen eta neurri zehatzak proposatzen, interes publiko premiazkoenen finantziazioan dauden desoreka larrienei heltzeko. ■

10. IOSCOri buruz, ikusi: https://www.iosco.org/v2/about/?subsection=about_iosco

Nicola Scherer

Observatori del Deute en la Globalització-ko (ODG) ikerlaria

Garapenerako Finantziario buruzko Nazio Batuen IV. Biltzarretik urte-erdia, zergatik da garrantzitsua oraindik ere nazioarteko finantza-sistema guztiz aldatzea?

2025eko uztailan, bero-bolada batean bete-bete, Nazio Batuen biltzar historiko bat egin zen Sevillan, Garapenerako Finantziario buruzko Nazio Batuen IV. Biltzarra¹ (FfD4, ingelesezko siglak), Espainiako estatua anfitrioi zela. Hitzordu jendetsua izan zen, eta gai giltzarriak jorratu ziren bertan, hala nola zor subiranoa, nazioarteko fiskalitatea, garapenerako lankidetzaren finantziarioa eta nazioarteko finantza-erakundearen erreforma. 150 herrialdeetako 15.000 pertsona inguru bildu ziren, eta, Biltzarraren amaieran, 70 estatuburuak Sevillako Konpromisoa² onartu zuten, negoziatioetako akordioak biltzen dituen dokumentua.

Zergatik axola beharko litzaiguke FfD4 biltzarrean gertatu zena? Lehenik eta behin, makroekonomiak eta nazioarteko espazioetan hartzen diren erabakiek milioika pertsonaren bizitzan, gure eguneroko bizitzan, gure ongizatean eta planetan eragiten dutelako. Globalaren eta tokiko eta egunerokoaren arteko lotura horien bi adibide emango ditut. Alde batetik, zor publikoaren eta austeritate-politiken arteko harremana, eta, bestetik, zergen eta finantziario klimatikoaren arteko harremana. Bigarrenik, justizia globaleranzko nazioarteko akordio eraldatzailerak lortzeko aukera egon arren, iparralde globaleko gobernuak negoziatioak blokeatzen ari direlako, zehazki Europar Batasuna, Erresuma Batua, Suitza eta CANZ taldea (Kanada, Australia eta Zeelanda Berria). Ameriketako Estatu Batuek ez zuten parte hartu ere egin Sevillako FfD4 biltzarrean, Brasilgo

1. Nazio Batuek (2025). *4th International Conference on Financing for Development*. <https://financing.desa.un.org/ffd4>
2. Nazio Batuek. (2025, ekaina). *Sevillako Konpromisoa* (A/CONF.227/2025/L.1). <https://docs.un.org/es/A/CONF.227/2025/L.1>



COP30 biltzarrean bezalaxe. Behin eta berriz gertatzen da hori ekonomia globalaren joko-arauak negoziatzen diren nazioarteko espazioetan: iparralde globaleko herrialdeek, eta, zehazki, EBk, hau da, gaur egungo sistemari etekina ateratzen diotenek, herritarren % 99rentzat eta planetarentzat hobeto funtziona dezakeen sistema bateranzko proposamen eraldatzailerak blokeatzen dituzte, eta Donald Trumpen administrazioak, berriz, AEBetan, zuzenean legitimitatea kentzen die nazioarteko negoziatio-espazioei. Herritar gisa, agerian jarri behar dugu hori, eta gure gobernuak egotzi behar diegu beren politika ekonomiko bidegabean erantzukizuna.

Austeritate-politika horiek hiru desabantaila dakarzkiete emakume eta neskei: beraiek dira lehenak oinarritzko zerbitzuetarako sarbidea galtzen (osasuna eta hezkuntza, adibidez), lehenak zerbitzu publikoen lehen lerroan lanak galtzen, eta lehenak ordaindu gabeko zaintza-lanaz arduratu behar izaten, gehitu egiten baita zerbitzu publikoek huts egiten dutenean edo hondamendi klimatikoak gertatzen direnean. Zerbitzu publikoak pribatizatzen badira, emakume eta neska gehienek haietarako sarbidea galtzen dute, eta egoera hori are larriagoa da jatorri, diru-sarrera, klase, adin, desgaitasun, indigeneitate, sexu-orientazio edo genero-identitateagatik desparekotasun anitzak jasaten dituzten emakume eta neskentzat.

Zorra eta austeritatea

2023an, 97 bilioi dolarreko zor publiko globalera iritsita³, mundua ez zen inoiz hain zorpetuta egon. Erlassjahrren arabera, hegoalde globalean aztertutako 152 herrialdeen % 55 modu kritikoan edo oso modu kritikoan zorpetuta daude, eta COVID-19aren pandemiaren aurretik, aldiz, % 37.4 Nazioarteko Diru Funttsaren (NDF) Fiscal Monitor txostenean esaten denez, munduko ekonomiaren NPGaren % 75ek —ekonomia nazional handienak barne hartzen dituen munduko herrialdeen herenak— zor-maila handiagoak dituzte, eta zor hori 2020 urtearen aurretik baino azkarrago hazten ari da.⁵ Zor-maila handi horiek direla-eta, hegoalde globaleko herrialdeak zaurgarriagoak dira. Pobretuenak NDFren esku-hartzearen eta mailegu baldintzatuen mende

daude, eta, ondorioz, kanpo-zorra ordaindu behar dute lehenik, hezkuntzan, osasunean edota ekintza klimatikoan inbertitu baino lehen. UNCTADen estatistikek erakusten dutenez, 19 herrialdek interes gehiago ordaintzen dituzte zorragatik hezkuntzan inbertitzen dutena baino, eta 45 herrialdek interes gehiago ordaintzen dituzte osasunean inbertitzen dutena baino.⁶ Gutxienez 48 herrialdek, guztira 3.300 milioi biztanle izanik, ez dute behar bezainbeste inbertitzen hezkuntzan edo osasunean zorraren ondorioz. Austeritate-politika horiek hiru desabantaila dakarzkiete emakume eta neskei:⁷ beraiek dira lehenak oinarritzko zerbitzuetarako sarbidea galtzen (osasuna eta hezkuntza, adibidez), lehenak zerbitzu publikoen lehen lerroan lanak galtzen, eta lehenak ordaindu gabeko zaintza-lanaz arduratu behar izaten, gehitu egiten baita zerbitzu publikoek huts egiten dutenean edo hondamendi klimatikoak gertatzen direnean. Zerbitzu publikoak pribatizatzen badira, emakume eta neska gehienek haietarako sarbidea galtzen dute, eta egoera hori are larriagoa da jatorri, diru-sarrera, klase, adin, desgaitasun, indigeneitate, sexu-orientazio edo genero-identitateagatik desparekotasun anitzak jasaten dituzten emakume eta neskentzat.

Zorrari dagokionez, oraindik ez dago nazioarteko berregituraketa- eta deuseztapen-mekanismo garden eta loteslerik zorpetutako herrialdeentzat. Praktikan, herrialde pobretuen kanpo-zorra deuseztatzea eta zor globalaren arkitektura aldatzea nazioarteko espazioetan lantzen diren gaiak dira, hala nola NDFren, Munduko Bankuaren, ELGaren eta G20aren biltzarretan, baina espazio ez-demokratikoak dira horiek, herrialde pobretuek ez baitute izaten ez botorik, ez parte hartzeko aukerarik. Urte askoan, gizarte-mugimenduek eta hegoalde globaleko herrialdeek nabarmendu dute premiazkoa dela zor subiranoari buruzko Nazio Batuen esparru-hitzarmen berri bat⁸ eta zorra birnegoziatzeko mekanismo

3. UNCTAD (2025). *A world of debt. Report 2025*. <https://unctad.org/publication/world-of-debt>

4. Erlassjahr.de (2024). *Global Sovereign Debt Monitor 2024*. <https://erlassjahr.de/wordpress/wp-content/uploads/2024/04/GSDM24-online.pdf>

5. Nazioarteko Diru Funttsa (2025). *Fiscal Policy under Uncertainty. Report April 2025*. <https://www.imf.org/en/publications/fm/issues/2025/04/23/fiscal-monitor-april-2025>

6. Ikus UNCTAD (2025).

7. ActionAid (2021). *The Public Versus Austerity: Why public sector wage bill constraints must end*. <https://actionaid.org/publications/2021/public-versus-austerity-why-public-sector-wage-bill-constraints-must-end?msclkid=30a59d97a92411ecba815418a74cd1e4#downloads>

8. EUODAD (2024). *UN framework convention on sovereign debt. Building a new debt architecture for economic justice*. https://assets.nationbuilder.com/eurodad/pages/4688/attachments/original/1729260399/01_debt-architecture-briefing-EN-oct18.pdf?1729260399

Sevillako FfD4 biltzarra espazio historiko bat izan zitekeen nazioarteko komunitatearentzat, baina sistematikoki blokeatu zuten herrialde hartzekodun boteretsuek: Europako herrialdeek (besteak beste). Hala, zorraren arloan, Sevillako Konpromisoak ez du aurreikusten zor subiranoari buruzko Nazio Batuen esparru-hitzarmen batekin aurrera jarraitzea, baizik eta gobernuen arteko prozesu bat aipatzen du, lotesleak ez diren gomendioak bakarrik egin ahal izango dituen. Zorra eta austeritate-politikak ez dira soilik hegoalde globaleko herrialdeen gaia, guztioi eragiten digute

bat izatea⁹, NBERen babespean, mailegu eta zor arduratsuen printzipioetan oinarrituta. Afrikako herrialdeak bereziki inplikaturik egon dira prozesu horretan. Era berean, Afrikan krisi klimatikoaren inpaktu suntsitzaileak areagotu ahala, zorraren gaia aurrekaririk gabeko mailara iritsi da herrialde hartako agenda politikoan. 2024an, lehen aldiz, Afrikako Batasunak zorraren erreformari buruzko jarrera bateratua hartu zuen, Lomeko Adierazpenarekin.¹⁰ 2025ean, Garapenerako Finantziarioari buruzko NBERen IV. Biltzarrean, herrialde-multzo horrek zor subiranoari buruzko Nazio Batuen esparru-hitzarmen baterako eskaera babestu zuen.

Dena den, gero eta handiagoa den kontzientzia horrek oraindik ez du erreforma sistemiko esanguratsurik ekarri. Sevillako FfD4 biltzarra espazio historiko bat izan zitekeen nazioarteko komunitatearentzat, baina sistematikoki blokeatu zuten herrialde hartzekodun boteretsuek: Europako herrialdeek (besteak beste). Hala, zorraren arloan, Sevillako Konpromisoak ez du aurreikusten zor subiranoari buruzko Nazio

Batuen esparru-hitzarmen batekin aurrera jarraitzea, baizik eta gobernuen arteko prozesu bat aipatzen du, lotesleak ez diren gomendioak bakarrik egin ahal izango dituen. Zorra eta austeritate-politikak ez dira soilik hegoalde globaleko herrialdeen gaia, guztioi eragiten digute. Europako Batzordeak, estatu kide gehienekin eta Europako Parlamentuarekin batera (eta NDFren politikekin bat, hein handian), Europar Batasuneko gobernantza ekonomikoaren erreforma onartu zuen 2024ko apirilean -EBko arau fiskalen erreforma gisa ezagutzen dena-, defizit publikoaren sabaiari BPGaren % 3an eta zor publikoaren sabaiari % 60an eustea ezartzen duena. COVID-19aren pandemiaren ondorioz 2020ko martxoan Europako arau fiskalak izoztu ondoren, estatu kideak zorpetu egin ziren osasun-larrialdiari aurre egiteko eta, aurrerago, 2022ko energia-krisiari erantzuteko.

Gaur egun, Espainiako estatuak metatzen duen zor publikoa BPGaren % 103 da. Baina nondik dator zor hori? European Network of Corporate Observatories (ENCO)¹¹ erakundearen ikerketak erakusten duenez, 2020tik 2022ra artean, Espainiako Gobernuak 112.683 milioi euro bideratu zituen Estatuko aurrekontutik krisiaren aurkako larrialdineurrietara; horietatik % 47 enpresetara bideratu ziren, eta % 7 baino ez osasunaren, hezkuntzaren eta garraio publikoaren sektoreetako ezohiko neurrietara. Pandemiaren osteko errekonperazio ekonomikoan eta ekonomia «berdea» eta «digitala» bihurtzeko trantsizioan ere milaka milioi euro inbertitu ziren, Next Generation EU funtsen laguntzarekin. Europako funtsak dira, 800.000 milioi eurokoak, eta, hein handian, eurobonuak (erkidegoaren zorra) jaulkiz finantzatzen dira. Funts horiek 10 eta 30 urte arteko epean itzuli beharko zaizkie nazioarteko finantza-merkatuko mailegu-emaleei. Azken finean, EBN eta Espainiako estatuan 2.0 austeritatearen bidera itzuli gara¹²—herrialde kide bakoitzera egokituta oraingoan, salbuespen «berde» eta «sekuritarioekin»— eta, horrela, inbertsio publikoko leiho bat irekitzen da ekonomiako sektore estrategikoetarako, hala nola teknologia, energia-trantsizioa, industrializazio «berdea» eta industria militarretarako. Murrizketen eraginak nabaritutako ditugu gobernu zentralak

9. Civil Society FfD Group (2021). *Submission to the UN Independent Expert on foreign debt and human rights on «International debt architecture reform and human rights»*. <https://www.ohchr.org/sites/default/files/Documents/Issues/IEDebt/Int-debt-architecture-reform/Civil-Society-FfD-group-input-IDAreform-EN.pdf>

10. Afrikako Batasuna (2025). *Declaration of the African Union Conference on debt (Lome, Togo)*. https://au.int/sites/default/files/documents/44785-doc-EN_Draft_Zero_Declaration_AU_Conference_on_Debt_Final.pdf

11. <https://www.elsaltodiario.com/una-de-las-nuestras/negocios-encima-personas-se-ha-dedicado-financiacion-publica-anticrisis>

12. <https://odg.cat/blog/la-reforma-fiscal-aprovada-per-la-ue-torna-a-imposar-austeritat/>

2025-2028rako¹³ epe ertaineko Zerga eta Egitura Plana ezartzen duen heinean, Europako Batzordera bidalia 2024ko urrian. Europako arau fiskalak betetzeko, Gobernuak helburutzat jarritako % 60a murriztu behar du zor publikoa. Zenbait modutan egin dezake: gastu publikoak murriztuz, 2018ko finantza-krisiaren osteko garaira itzuliz, edo diru-sarrerak handituz bilketaren bidez, hau da, gehien dutenei zerga gehiago jarrita.

Zergak eta finantziazio klimatikoa

Gaur egun, pobretutako herrialde askok (baita herrialde aberastuek ere) zergak biltzeko ahalmen mugatua dute, ELGAko herrialdeen klubak ezarritako arau fiskal bidegabeak direla eta. Izan ere, 60 urte baino gehiagoan, neurri handi batean herrialde aberatsenen eta enpresa handien interesetara egokitzen den sistema bati eutsi diote.¹⁴ Alabaina, politika fiskala funtsezkoa da herrialde batentzat beharrezkoak diren gizarte-gastuak finantzatzeko, zorpetze publikora jo beharrik izan gabe. Gainera, muturreko gertaera meteorologikoak gero eta ohikoagoak dituen eta larrialdi klimatikoko testuinguru batean, estatuen ahalmen fiskala erabakigarria da inpaktuak arintzeko, galerei eta kalteei erantzuteko eta egokitzapen klimatikoan inbertitzeko. Gizarte zibilak gehien dutenen artean biltzea eskatzen du (ultra-aberatsen, enpresa multinazionalen edo erregai fosilen industriaren artean, adibidez), genero-ikuspegia eta justizia klimatikoaren ikuspegia duten politika fiskal progresiboaren bidez. Esaterako, kalkuluen arabera, zerga berriek, hala nola ezohiko irabaziak zergapetzen dituenak, urtean ia bilioi bat dolar bildu ahal izango lituzkete potentzialki¹⁵, pertsona aberatsenen

gaineko % 1eko zerga batek urtean 6,4 bilioi dolar arte bildu ahal izango lituzke potentzialki¹⁶, eta finantza-transakzioen gaineko zerga batek 650.000 milioi dolar arte bildu ahal izango lituzke urtean.¹⁷

Justizia fiskala ere garapenerako finantziazioaren erdigunean dago, eta, gaur egun, aurreratuen dauden eztabaidetako bat da -justizia ekonomiko globalaren ikuspegi batetik- Nazio Batuetan. Nahiz eta 2025eko urtarrilean Ameriketako Estatu Batuak prozesutik erretiratu ziren, nazioarteko lankidetzak fiskalari buruzko NBEn hitzarmen berri bat negoziatzeko prozesuak, puntu askoren artean, enpresa multinazionalen irabazien gaineko % 25eko gutxieneko zerga bat barne hartzen duenak, aurrerapauso garrantzitsu bat eman zuen 2025eko urtarrilean, nazioarteko zerga-lankidetzari buruzko Nazio Batuen esparru-hitzarmen baterako erreferentzia-terminoak onartuta.¹⁸ 2025eko azaroan Nairobiri (Kenya) egindako azken negoziatzaile-txandaren ondoren, prozesua aurrera doa hitzarmen berriaren edukia eta hasierako bi protokolo negoziatzeko, eta 2027aren amaierarako amaituta egon beharko lukete.

Sevillako FfD4 biltzarrean, estatukideek zergei buruzko esparru-hitzarmenerako negoziatzaileak azkartzeko beharra babestu zuten.¹⁹ Sevillako Konpromisoan, estatu kideek aipatu zuten garrantzitsua dela zergak eta desparekotasunak murrizteko helburua lotzea, genero-ikuspegia kontuan izatea, legez kontrako finantza-fluxuei eraginkortasunez aurre egitea -adibidez, paradisu fiskalak edo jardunbide fiskal erasokorrak deuseztatzeak neurriak sustatuz-, eta

13. https://portal.mineco.gob.es/es-es/economia-y-empresa/Economia/InformesMacro/Documents/Informes%20de%20previsi%C3%B3n%20y%20programaci%C3%B3n/Plan_fiscal_y_estructural_de_medio_plazo_2025_2028.pdf

14. Mark Bou Mansour (2021). *Tax haven ranking shows countries setting global tax rules do most to help firms bend them*. Tax Justice Network. <https://taxjustice.net/press/tax-haven-ranking-shows-countries-setting-global-tax-rules-do-most-to-help-firms-bend-them/>

15. Oxfam International, ActionAid (2023). *Big business' windfall profits rocket to «obscene» \$1 trillion a year amid cost-of-living crisis; Oxfam and ActionAid renew call for windfall taxes*. <https://www.oxfam.org/en/press-releases/big-business-windfall-profits-rocket-obscene-1-trillion-year-amid-cost-living-crisis>

16. Oxfam International (2024). *Tax the Richest to Save our Planet*. <https://actionaid.org/sites/default/files/publications/Tax%20the%20Richest%20to%20Save%20our%20Planet%20-%20Oxfam.pdf>

17. Cuts International (2023). *A Universal Financial Transaction Tax could generate \$650bn a year for climate finance: CUTS International*. <https://cuts-international.org/a-universal-financial-transaction-tax-could-generate-650bn-a-year-for-climate-finance-cuts-international/>

18. Nazio Batuak (2025). *Terms of reference for a United Nations Framework Convention on International Tax Cooperation*. https://financing.desa.un.org/sites/default/files/2025-01/n2501014_E.pdf

19. Tax Justice Network (2024). *United Nations General Assembly votes overwhelmingly to begin historic, global tax overhaul*. <https://taxjustice.net/press/united-nations-general-assembly-votes-overwhelmingly-to-begin-historic-global-tax-overhaul/>

Galerei eta kalteei dagokienez, tanta hotzak 229 heriotza eragin zituen, eta ekosistemak, azpiegiturak, errepideak, trenbideak, zubiak, etxebizitzak eta ibilgailuak suntsitu zituen. Valentziako hondamendiak agerian jartzen du ez gaudela prestatuta larrialdi klimatikoaren ondorioei erantzuteko, eta aurreikuspen eskasak zer ondorio lazgarri dituen ere erakusten du. Baina, era berean, onura ekonomikoen pilaketa lehenesten duen epe laburreko eredu bat eta hondamendiaren kapitalismoa nabarmentzen ditu, tanta hotzetik urtebetera berreraikuntzara bideratutako funts publikoen analisi batek erakusten duen bezala.

enpresa multinazionalen zein pertsona aberatsenei bidezko zergak jartzea. Nolanahi ere, asmoen adierazpen hori NBEko estatu kide guztientzat legez loteslea izango den asmo handiko testu batera eramatea egiteke geratu zen.

Justizia fiskalaren arloan justizia klimatikoarekin aurrera egitea ere garrantzitsua da Espainiako estatuko pertsonentzat eta lurraldeentzat. 2024ko abenduan, erreforma fiskal bidezko eta berde baten²⁰ aurka dauden erresistentzia politiko eta korporatiboak ikusi ahal izan ziren. Diputatuen Kongresuak ez zuen onartu enpresa energetikoei ezarritako ezohiko zergari eustea, nahiz eta zerga horren bidez urtean 1.500 milioi euro baino gehiago biltzen diren enpresa multinazional energetiko kutsatzaileen artean, hala nola Repsol eta Iberdrolatik. Enpresa kutsatzaile horiek larrialdi klimatikoaren eta haren muturreko fenomenoaren erantzule dira, eta, puntu honetan, Valentzian izandako tanta hotza gogoratu behar da. Galerei eta kalteei dagokienez, tanta hotzak 229 heriotza eragin zituen, eta ekosistemak, azpiegiturak, errepideak, trenbideak, zubiak, etxebizitzak eta ibilgailuak suntsitu zituen. Valentziako hondamendiak agerian jartzen du ez gaudela prestatuta larrialdi klimatikoaren ondorioei erantzuteko, eta aurreikuspen eskasak zer

ondorio lazgarri dituen ere erakusten du.²¹ Baina, era berean, onura ekonomikoen pilaketa lehenesten duen epe laburreko eredu bat eta hondamendiaren kapitalismoa nabarmentzen ditu, tanta hotzetik urtebetera berreraikuntzara bideratutako funts publikoen analisi batek erakusten duen bezala.²² Ildo horretatik, garrantzitsua da erantzukizun komun baina bereizien printzipioa baliaraztea: gehien kutsatu duenak eta larrialdi klimatikoa eragiten ekarpen handiena egin duenak hura konpontzeko (eta ordaintzeko) betebeharra du.

Ageriko eragileak eta ikusezin bihurtu direnak

Sevillako FfD4 biltzarrerara itzuliz, (berriz ere) ikusi da nor diren gaur egungo sistema ekonomiko eta finantzarioaren arau eta erreformei buruzko erabakietan eragina duten eragile boteretsuak. Garapena finantzatzeko proposamena lankidetzara publiko-pribatu handi bihurtu da zuzenean: iparralde globalak bere narratiba indartu du, hau da, finantzek eta kapital pribatuak «salbatuko gaituztela», eta garapen-proiektuetarako (azpiegiturak, osasuna, hezkuntza...) inbertsio pribatua erakartzea, blindatzea eta ziurtatzea dela arlo publikoaren egitekoa. Hori guztia zerbitzu publikoak pribatizatzea ahalbidetuko duten aldeko lege-esparruen eta berme publikoen bidez. Izan ere, bi egun lehenago, eta Biltzarraren lekutik bereizitako barruti batean, gizarte zibila bere Gizarte Foroa egiten ari zen bitartean, NBEk *Business Forum* foroa antolatzen utzi zion sektore pribatuari, Biltzarraren egunetan eta Nazio Batuen barrutian bertan. Konplizitateak jada ez dira ezkututzen, baizik eta sektore pribatuarentzako pribilegioak ezin hobeto ikusi dira egun-argitan, eta gai hori behin eta berriz agertzen da halako espazio multilateraletan, COP30ean²³ adibidez. Hala, ez da harritzekoa finantza

20. Observatori del Deute en la Globalització, et al. (2024). *Oinarrizko hamar neurri erreforma fiskal bidezko eta berde baterako #BidezkoZergak*. <https://odg.cat/es/blog/reforma-fiscal-justa-y-verde-diez-medidas-basicas-impuestosjustos/>

21. Observatori del Deute en la Globalització, et al. (2024). *Komunikatua: Kapitalismoak eta negazionismo klimatikoak hil egiten dute*. <https://odg.cat/es/blog/comunicado-el-capitalismo-y-el-negacionismo-climatico-matan/>

22. LaDirecta, Observatori del Deute en la Globalització (2025). *Urtebete tanta hotzetik Valentziako 'Horta Sud' eskualdean*. <https://odg.cat/es/blog/un-ano-despues-de-la-dana-en-la-horta-sud-de-valencia/>

23. Custodio, C. (2025, otsailak 27). *COP30 izan daiteke erregai fosilen industriaren parte-hartzea duen azkena?* Publikoa. <https://www.publico.es/opinion/columnas/puede-cop30-ultima-participacion-industria-fosil.html>

pribatuen kontrola izatea hurrengo biltzarrerako utzi diren gai tabu horietako bat. Eta hurrengo biltzarrak oraindik ez du datarik.

Dena den, Sevillako FfD4 biltzarrean, finantziaziotik harago doazen aliantza eta dinamika global oso esanguratsuak ere agertu ziren, *statu quo*a kolokan jartzen dutenak. Protagonista handiak —ikusezin bihurtuak— hegoalde globaleko estatuen arteko aliantzak izan ziren, zehazki Afrikar Taldea, 54 estatu kideek osatua; Herrialde Pobretuenen Taldea (LDC, ingelesezko siglak), 44 estatu kideek osatua; eta Uharteetako Estatu Txikien Aliantza (AOSIS, ingelesezko siglak), 39 estatu kideek osatua. Negoziazioetan funtsezko eskaera eraldatzaileak babestu zituzten, hala nola zor subiranoari buruzko Nazio Batuen esparru-hitzarmen lotesle bat eta garapenerako nazioarteko lankidetzarako beste bat sortzeko beharra; Nazioarteko Diru Funtza eta Munduko Bankua demokratizatze beharra, hegoalde

globaleko herrialdeei ahotsa eta botoa emanez; inbertsio-funts pribatu boteretsuak kontrolatzeko (Blackrock, JP Morgan, etab.) eta *rating*-agentziak arautzeko beharra (Moody's, Standard & Poor's, Fitch Rating). Azkenean, zoritxarrez, eskaera horiek apaldu egin dira Sevillako Konpromisoan, edo zuzenean baztertu, Biltzarra baino 15 egun lehenago ateak itxita egin zen azken negoziazio-txandan.

Orain Sevillan eta duela aste batzuk Belemen ikusi genuen bezala (COP30), herrialdeen eta *lobby*en multzotxiki batek bere pribilegiozko lekua defendatzen jarraituko du, *statu quo*ari eta desparekotasunei eusteko eta sakontzeko politikak eginez. Baina, Sevillan ere ikusi genuen bezala, hegoalde globaleko herrialdeak buru dituen talde handi eta askotariko bat dago, gizarte zibil antolatuaren laguntza duena, eta adi-adi daude denak, joko-arauak aldatzeko presioa egiten eta lan egiten jarraitzeko prest. Izan ere, gure bizitza eta etorkizuna daude jokoan. ■

Arantza Acha

UN Etxea-ko zuzendaria



Iturria: Pool Moncloa/Borja Puig de la Bellacasa. lamoncloa.gob.es. Lehendakaritza Ministerioa

2025eko uztailaren hasieran, mundu osoko gobernu, nazioarteko erakunde, finantza-erakunde, gizarte zibileko sare eta lurralde-eragileetako milaka ordezkari hartu zituen Sevillak. Lau egunez, itxaropenek, kezkek eta garapen jasangarriaren erlojua erantzun kolektiborako dugun gaitasuna baino azkarrago doalako sentsazioak bat egin zuten hirian. Nazio Batuen Garapenerako Finantziarioari buruzko IV. Biltzarra (FfD4) hitzordu erabakigarria zen parte-hartzaile askorentzat: baliabideak mobilizatzeko premiagatik, gaur egungo krisien neurriari jada erantzuten ez dion finantza-arkitektura globalaren norabidea zuzentzeko beharragatik, eta, batez ere, multilateralismoak bizirik jarraitzen duela erakustegatik. Gero eta handiagoa den desperekotasunetik eta larrialdi klimatikotik hasita, atzerakada demokratikoa eta gastu militarren igoera ahaztu gabe, nazioarteko sistema egiturazko agortzearen ageriko sintomekin iritsi zen Sevillara.

Gizarte zibiletik, lurraldeetatik eta nazioarteko lankidetzatik lan egiten dugunontzat, adostasunezko dokumentu berri bat lortzea ez zen gure itxaropen bakarra. Aitorpen argi bat nahi genuen: ez dagoela 2030 Agenda betetzeko aukerarik nazioarteko finantza-gobernantzan aldaketa sakonik egin gabe, bereziki zorrari, fiskalitate globalari, finantziario klimatikoari

eta ondasun publikoei dagokienez. Era berean, negoziatio-egitura irekia espero genuen, oraintxe behar dugun multilateralismoaren jardunbidearekin bat egiten zuena: inklusiboa, non gizarte zibila, tokiko eta eskualdeko gobernuak, komunitateak eta gizarte-mugimenduak ez ginatekeen bertaratu soilak izango, eragile aktiboak baizik. Eta gure nahia zen, halaber, Sevillak aitortu zezala tokikotik eta urteetan erakusten daramagun ebidentzia bat: ez dagoela garapenik lurralderik gabe; bizi, zaindu, ekoitzi eta eskubideei eusten zaien lekuetan gertatzen direla eraldaketak; eta errealtate zein lurralde-behar horiekin bat egiten badu soilik dela baliagarria finantziarioa.

Premia- eta itxaropen-nahaste horrekin iritsi ginen FfD4ra. Eszenatoki konplexua aurkitu genuen. Alde batetik, herrialdeen arteko tentsioak, fiskalitate globalaren inguruko hausturak eta unearen larritasunari partzialki baino heltzen ez dion azken dokumentu bat. Bestetik, gizarte- eta lurralde-energia harrigarriki sendoa, hirien eta eskualdeen egiteko garrantzitsuen aitorpenaren lehen zantzuak, eta tresna berri baten agerpena: Sevilla Platform for Action (SPA), finantziarioaren tokiratzea arkitektura globalaren erdigunean kokatzen duena lehen aldiz.

Futuro en Común-ek gazi-gozo gisa deskribatu zuen emaitza: krisi sistemiko baten erdian bere burua berriro aztertzen duen nazioarteko sistema bat; Sevillako Konpromisoarekin, aurrerapen partzialak eta erreferentzia garrantzitsuak eskaintzen ditu, baina baita hutsune garrantzitsuak ere, desparekotasunaren, fiskalitatearen, zorraren edo giza eskubideen arloan benetan lotesleak diren konpromisorik sartu ez duelako. Plataforma horrek salatu zuen zor subiranorako edo NBERen konbentzio fiskal baterako esparru multilateral bat eratzeko aurrerapenak blokeatu zituztela iparralde globaleko herrialdeek, eta, hala, botereak gutxi batzuen eskuetan jarraitzen duen sistema bat babestea aukeratu zutela.

Eredu global baten agortzearen eta gizarte-bizitasunaren konbinazio horrek markatu zuen Biltzarraren tonua. Futuro en Común-ek gazi-gozo gisa deskribatu zuen emaitza: krisi sistemiko baten erdian bere burua berriro aztertzen duen nazioarteko sistema bat; Sevillako Konpromisoarekin, aurrerapen partzialak eta erreferentzia garrantzitsuak eskaintzen ditu, baina baita hutsune garrantzitsuak ere, desparekotasunaren, fiskalitatearen, zorraren edo giza eskubideen arloan benetan lotesleak diren konpromisorik sartu ez duelako. Plataforma horrek salatu zuen zor subiranorako edo NBERen konbentzio fiskal baterako esparru multilateral bat eratzeko aurrerapenak blokeatu zituztela iparralde globaleko herrialdeek, eta, hala, botereak gutxi batzuen eskuetan jarraitzen duen sistema bat babestea aukeratu zutela. Eta hauteman zen, halaber, arrisku ezagun bat berragertu zela Sevillan: gizarte zibilaren parte-hartzea mugatua izan daitekeela faserik delikatuenetan. Une erabakigarri batzuetan, informazioa eskuratzeko aukera eta elkarrizketarako guneak mugatuak izan ziren, eta horrek etorkizuneko prozesuetan irekitasuna eta konfiantza nola indartu hausnartzera garamatza.

Baina, agian, esanguratsuena izan zen testuinguru horretan ere nazioarteko gizarte zibilak atzera ez duela egiten egiaztatzea. Mila pertsonak baino

gehiagok parte hartu zuten Biltzarraren aurreko Gizarte Zibilaren Foroan, feminismo, ekologismo, sindikatu, herri indigena, gazte eta mugimendu migratzaileetatik proposamen zehatzei forma emanez. Gizarte-dentsitate horrek erakusten du, krisi demokratikoa eta diskurtso autoritario eta supremazisten gorakada dauden garai hauetan, gizarte zibilak jarraitzen duela izaten guztion ongiaren eta arau partekatuen defendatzaile nagusia. Eta gogorarazten du, dokumentuak baino lehen, eskubideen, instituzionaltasunaren eta lankidetzaren hizkuntzari eusteko gai diren komunitate politikoak behar ditugula.

Gaiari finantziaziotik begiratzea da Sevilla zergatik izan zen garrantzitsua ulertzeko modu bat. Hamarkadetan zehar, «garapenerako finantziazioa» aldebakarreko fluxutzat hartu da: emaitzetatik herrialde hartzaileetara bidaiatzen duten baliabideak. Baina errealitatea konplexuagoa da. Finantziazioa bi noranzko dituen bide bat da. Lurraldeek baliabideak behar dituzte zerbitzu publikoei eusteko, trantsizio klimatikoak kudeatzeko eta eskubideak bermatzeko; baina, horrez gain, erakunde sendoak, gizarte-kohesioa, gardentasuna, epe luzeko ikuspegia eta gaitasun teknikoa behar dituzte finantziazio horrek benetako eragina izan dezan. Lurralde-oinarri hori gabe, finantziazioa aldakorra, urria edo kaltegarria ere izan daiteke. Norabidetasun bikoitz hori, garapenerako finantziazioa eta finantziaziorako garapena elkarren mendeko alderdi moduan ulertzen dituen, indarra hartzen hasi zen Sevillan, finantziazioa lurraldeen errealitatetik pentsatzeko begirada osoagoa ematen duen ikuspegi emergente gisa.

Eztabaida hori erabakigarritasun-maila bereko beste batekin gurutzatzen da: zer neurtu aurrera egiten ari garen jakiteko. Futuro en Común bezalako erakundeek ekarpen garrantzitsuenetako bat BPGa adierazle nagusi gisa kritikoki berrikustea izan zen. BPGak ez ditu aintzat hartzen desparekotasunak, zaintzak, ingurumen-narriadura eta aberastasun-banaketa; eta krisiak bat bestearen atzetik datozen testuinguru batean, politika publikoen iparrorratz moduan hori behin eta berriz hartzea defendaezina da. Biltzarraren baitan egin zen «BPGaz harago» ekitaldian, ongizatea, ekitatea, ondasun publikoak, jasangarritasuna eta zaintza-lana islatuko lituzketen neurketetarako bideak ireki ziren. Hori ulertzea funtsezkoa da finantziaziorako: neurtzen dugunak baldintzatzen du lehenesten duguna; lehenesten

dugunak mugatzen du zertara bideratuko diren baliabideak; eta horrek zehazten du zer bultzatuko dugun, erdigunean bizitza jartzen duen garapena edo komunitateak eta lurraldeak agortzen dituen hazkundera.

Eta, hain justu, finantziazioaren, neurketen eta lurraldearen arteko gurutzaketa horretan hartzen du zentzua Sevilla Platform for Action-ek. Biltzarraren baitan adostutako Sevillako Konpromisoarekin batera, ekintza-plataforma bat dago, akordio hori aurrerapen zehatz eta neurgarri bihurtzeko helburua duten 130 ekimen baino gehiago biltzen dituen. SPA gobernu, nazioarteko erakunde, finantza-erakunde eta estatukoak ez diren eragile askoren ahalegin kolektibo gisa planteatzen da, Garapen Jasangarrirako Helburuak azkarrago lortzeko soluzioetarako bideratzeko nazioarteko finantziazioa.

Esparru orokor horrek hainbat eragilek sustatutako ekimenak biltzen ditu, eta, horien artean, Espainiako Gobernuak, NBEHabitategen eta ELGAk elkarrekin bultzatutako proposamen hau nabarmentzen da: *Localizing finance to drive systemic impact for the achievement of the 2030 Agenda*. Ekimen horrek garrantzi berezia du, lurraldeen egitekoa jartzen duelako garapenerako finantziazioaren erdigunean. Aurrerapauso bat da, aintzatespen bat, eraldaketa sistemikoa ezinezkoa izango dela baldin eta finantziazioak barne hartzen ez baditu, bere diseinutik bertatik, hiri, eskualde eta komunitateen aniztasuna, gaitasuna eta lehentasunak.

SPA bera partaidetza-prozesu zabal baten ondotik eraiki zen, munduko eskualde guztietako 30 tailerretan inplikaturako 1.000 pertsona baino gehiagorekin. Horrek erakusten du lurralde-ikuspegia ez dela osagarri bat, egiturazko printzipio bat baizik. Esparru horren barruan, Local2030 Koalizioa buru duen ekimenak maila globalean indartzen laguntzen du hainbat urtez gizarte zibilak eta tokiko nahiz eskualdeko gobernuek defendatu zuten premisa bat: lurraldeak ez direla soilik erabaki globalak gauzatzeko espazioak, baizik eta inbertsioak bideratzeko, konfiantza sortzeko, egiturazko aldaketei eusteko eta emaitzak ebaluatzeko gaitasun politiko, instituzional eta teknikoak duten eragileak ere badirela.

SPAn sartuta, lurralde-ekimen honek arkitektura bat ematen du, eta aitortzen du Sevillako Konpromisoaren benetako eragina lurraldeen gaitasunaren mende

egongo dela oso modu esanguratsuan; ikusi beharko da lurralde horiek gai diren eragile anitzeko aliantzak bultzatzeko, tokiko eta eskualdeko sistemak indartzeko eta nazioarteko finantziazioa eraldaketa zehatz eta jasangarri bihurtzeko. Horrela, ekimen honek, politika globalak antolatzeaz gain, lurraldeek multilateralismo berrian duten egitekoa modu esplizituan finkatzen laguntzen du, eta eragile askok, Sevilla barruan zein kanpoan, ezinbestekotzat jotzen dugu hori gaur egungo ziurgabetasunaren aurrean eskubide, erakunde eta ondasun komunei eusteko.

Helburu politiko nagusi bat ere badu ekimenak: eragile anitzeko jardunbide-komunitate bat sortzea, GJHen tokiratzea azkartzeko, lankidetzaren deszentralizatuaren bidez, hiriak eta eskualdeak eraldaketa-eragile gisa ahaldunduz. Horren ondorioz, tokiko gobernuen eta beste finantza-eragile batzuen gaitasunak indartuko dira, eta tokian bertan oinarritutako inbertsio-estrategiak sustatuko dira, tokiko lehentasunekiko koherenteak eta «ez pertsonarik, ez lekurik atzean ez uzteko» diseinatuak.

Lurralde-ikuspegi hori lurreratzeke ekarpen indartsuenetako bat Bilbao Blueprint da, ideia horiek errealitatera eramateko esparru praktikoa bat eskaintzen baitu. Lehen bultzada-ildoak honako hau da: gaitzen duen ingurune bat lantzea, non herritarrek proiektu kolektiboko kide, partaide eta jabe sentituko diren; oinarri hori gabe, finantziazioa ez da ez egonkorra, ezta jasangarria ere. Bigarren ildoan, tokiko eragile guztietan, erakunde publikoetan, sektore pribatuan, gizarte zibilean eta akademian gaitasunak eta berrikuntza indartzea proposatzen da, GJHak integratzeko, eragile anitzeko aliantzetan sakontzeko eta lurralde-ezagutza mobilizatzeko. Hirugarren ildoak lurralde-ikuspegi partekatua bat eraikitzean jartzen du arreta, eta sistemak eraldatzeko nahiz zatiketa saihesteko gaitasuna duten ekimenak biltzen ditu, tokiko eragileek elkarrekin sortuak. Eta laugarrenak finantzen tokiratzea sustatzen du, hauen bidez: inbertsio sistemikoak, nazioarteko eta nazioaz azpiko finantziazio-arkitektura koherenteak, ikaskuntza horizontala, arriskugabetzeko mekanismoak eta inbertsioa komunitate-mailara ere iristeko aukera emango duten estrategiak.

SPAk eta Bilbao Blueprintek diagnostiko bera egin dute: eraldaketari lurraldetik eusten zaio, baina erakunde sendoak, eragile anitzeko aliantzak, neurketa egokiak eta finantza-tresna berritzaile

[...] Sevillak utzi duen ikaskuntzarik garrantzitsuenetako bat da lurraldea ez dela eskala txikiagoa, ezta «inplementazio» bat ere: arkitektura politiko bat da, eta espazio horretan herritarrek hautematen dute demokrazia existitzen den ala ez, eskubideak bermatzen diren, bizitza zaintzen den eta erakundeek erantzuten duten. Politika globalak arrotza edo urrunekoa dirudien lekuetan, lurraldea gai da konfiantza berreraikitze eta kontratu sozialari eusteko. Eta krisiak desparekotasunak ugaritzen dituen lekuetan, tokiko gobernuen, gizarte zibilaren, enpresa arduratsuen eta unibertsitateen arteko lankidetzaren ezinbestekoa da gizarte-haustura ez dadin bihurtu proiektu autoritarioek aprobetxatuko duten hutsune demokratikoa

zein eskuragarriak behar ditu. Bi esparru horiek gogorarazten dute egonkortasun fiskala, erakundearen legimitatea eta gizarte-kohesioa ez direla «aukerako osagaiak», baizik eta garapen-jasangarriko inbertsioa erakartzeko eta herritarrengan nahiz ingurunean eragin positiboa bermatzeko alde aurreko baldintzak direla. Eta biek azpimarratzen dute finantziarioa proiektu isolatueta zatitzea utzi behar zaiola, eta sistema osoetara bideratu: ekonomia-ehuna, balio-kateak, zerbitzu publikoak, ekosistema naturalak edo zaintza komunitarioak.

Gaur egungo multilateralismoaren testuinguruan aurrerapen horiei begiratzea esanguratsua da. Desinstituzionalizazioa, adostasun-haustura, desarautzea balio gisa eta inpunitatea jardunbide gisa nagusitzen ari direla dirudien une honetan, guztion denaren defentsa pragmatikoa adierazten dute ekimen horiek. Multilateralismoak garrantzitsua izaten jarraitu nahi badu, berriz konektatu behar du lurraldeekin eta egunerokoan demokraziari eusten dioten eragileekin: tokiko erakunde publikoak, gizarte zibila, sektore pribatu arduratsua, akademia, kooperatibak, gizarte-mugimenduak, komunitate-sareak eta herritarrak.


Gailurretan bakarrik bizi den multilateralismoa eskubiderik gabeko indarra eta demokraziarik gabeko eraginkortasuna agintzen duten kontakizunak ordezkatzeko dute azkenean.

Horregatik, Sevillak utzi duen ikaskuntzarik garrantzitsuenetako bat da lurraldea ez dela eskala txikiagoa, ezta «inplementazio» bat ere: arkitektura politiko bat da, eta espazio horretan herritarrek hautematen dute demokrazia existitzen den ala ez, eskubideak bermatzen diren, bizitza zaintzen den eta erakundeek erantzuten duten. Politika globalak arrotza edo urrunekoa dirudien lekuetan, lurraldea gai da konfiantza berreraikitze eta kontratu sozialari eusteko. Eta krisiak desparekotasunak ugaritzen dituen lekuetan, tokiko gobernuen, gizarte zibilaren, enpresa arduratsuen eta unibertsitateen arteko lankidetzaren ezinbestekoa da gizarte-haustura ez dadin bihurtu proiektu autoritarioek aprobetxatuko duten hutsune demokratikoa.

Beharbada, Sevillaren sakoneko zentzua tentsio horretan datza, hain zuzen ere: mugen eta aukeren arteko tentsioan, erakundearen blokeoen eta gizarte-sormenaren arteko tentsioan, eta mehatxu globalen eta tokiko gaitasunen artekoan. Biltzarrak zerbait erakutsi bazuen, haxe izan zen: finantziarioa ez da gai tekniko bat, politikoa baizik; multilateralismoa ez da erritual diplomatiko bat, gizateriaren etorkizuna negoziatzen den espazio bat baizik; eta lurraldeak ez dira onuradun pasiboak, baizik eta demokratikoak, bidezkoak eta jasangarriak izan nahi duten arkitektura globaletako ezinbesteko protagonistak dira.

Inpunitateak, balio partekatuen hausturak eta guztion ongia mespretxatzen duen individualismoak gailendu nahi dutela dirudien garai hauetan, Sevillak gogorarazten digu oraindik badaudela espazio batzuk, nahiz eta imperfektuak, osatugabeak eta lehia-iturri izan, inbertsio hori behar dutenak lankidetzan, erakundeetan eta bizikidetzan oinarrituta etorkizuna eraikitze. Eta etorkizun horri, posible izan nahi badu, lurraldeek, gizarte zibilak eta erakunde publikoek eutsi beharko diotela, baita garapenak eta demokraziak aurrera egiteko biak elkarrekin eraiki behar direla dioten ideari uko egin nahi ez dioten eragile guztiek ere. ■

José Medina Mateos
La Mundial kolektiboa



Hamarkadetan zehar, nazioarteko lankidetza-sistema modernizazioaren narratibaren inguruan egituratu zen, modernizazioa mendebaldeko bizitzaren ideala lortzeko herri guztiek jarraitu behar zuten prozesu historikotzat ulertuta, gizateria osoarentzat posible eta desiragarria zen idealtzat joa. Narratiba hori paradigma hegemonikoaren bizkar-muinean kokatu zen garapenerako nazioarteko lankidetzan. Ondorioz, herrialde «garatu» batzuen artean banatu zen mundua, eta horiek, «garapenerako laguntza»-politiken bidez, «garapen-bidean» zeuden herrialdeen modernizazioa sustatu behar zuten.

Praktikan, ordea, lankidetza-eredu horrek ez zuen modu autonomoan funtzionatzen nazioarteko sistemarekiko, baizik eta hura eratzen zuten botere-harremanekiko funtzionala zen. Hala, garapenerako lankidetza funtsezko tresna bat izan da hegoalde globaleko herrialdeak politikoki, ekonomikoki eta kulturalki menderatzeko. Ez da kasualitatea, beraz, sistema arrakalatu denean eta iparralde globalaren nagusitasuna gero eta herrialde gehiagok zalantzan

jartzen dutenean (politikoki eta materialki), garapenerako lankidetza kaleitsu batean harrapatuta egotea. Izan ere, garapenerako lankidetza-politika bera emaila nagusietako batzuen kanpo-politikatik desagertzen ari da pixkanaka, eta horren adibide da Nazioarteko Garapenerako Estatu Batuetako Agentzia (USAID) kentzeko Donald Trumpen gobernuaren egiten ari den mehatxua.

Testuinguru horretan, garapenerako GKEek, garapenerako lankidetza-sistema garaikidearen zutabeetako bat izanik, birposizionamendu bat egin nahi dute, sistemaren oinarri kontzeptualen berrikusketa ere planteatuko duena. Hori da Oxfam Intermón erakundeak lankidetzari buruzko bere azken txostenean egiten duena. *Nazioarteko lankidetza justizia globalerako* 1 txostena 2025eko uztailaren argitaratu zen, eta «laguntzaren errealitateari» buruzko ikuspegi klasikoaren eraldaketa sendotzen du, erdigunean «justizia globala» jartzen duen begirada zabalago batekin.

Hemen aipatutako txostenak lankidetzaren deskolonizazioa deritzona du analisi-premisatzat, zeinak «bere pentsamendu-esparruak, logikak, narratibak, egiturak eta jardunbideak deskolonizatzeko prozesuak» bultzatuko lituzkeen, desplazamendu horrek bere egitekoan benetako aldaketa eraginkorra ekarriko duelakoan eta lankidetza-sistema osoa hartzen duen aldaketa zabalago batean eragingo duelakoan.²

Lankidetzaren deskolonizazio-prozesu hori sistemaren hiru eremu handitan planteatuko litzateke, haren egiturazko eraldaketa bat lortzeko helburuarekin: garapenaren gaineko ezagutzaren deskolonizazioa, iparralde globaletik eta haren interesetatik abiatuta sortutako ezagutzaren muga epistemologikoak

1. Eskuragarri, hemen: <https://www.oxfamintermon.org/hubfs/Oxfam-Website/oi-informes/cooperacion-internacional-justicia-global-2025.pdf>
2. 7. orrialdea.

[...] txostenean ohartarazten da ez dela aitortzen espainiar lankidetzan dagoen herentzia koloniala, eta horrek espainiar lankidetzaren logika neokolonial tradizional batzuk errepikatzeko arriskua sortuko luke.

gainditzeko; antolaketa-jardunbideen deskolonizazioa, nazioarteko harremanetan dagoen botere-desparekotasuna hezurmamitzen baitute; eta ereduaren elementu komunikatibo eta sinbolikoak. Laburbilduz, «ustiatuak izanik lankidetz-egituretan eta -jardunbideetan dauden botere-harremanak zalantzan jartzen dituzten herri eta lurraldeek adierazitako askotariko zapalketa-esperientziak ditu abiapuntu. Horregatik, botere-harreman horiek modu eraginkorrean eraldatu dituen prozesu bat izan behar du». Ondorioz, ikuspegi horretatik eredu eraldatzeko ezinbesteko baldintza bat izango litzateke lankidetz-ereduan dagoen aztarna koloniala aitortzea, oraindik desparekoak diren botere-harremanak orekatuko dituen bide berri bat egiteko hortik abiatuta.

Planteamendu teoriko horren ondoren, azken urteetan gure herrialdean lankidetzari buruzko eztabaida publikoaren protagonista izan diren orain dela gutxiko bi prozesutara eramaten du txostenak analisi hori: lankidetz-ereduaren erreformara, zeina 2023an amaitu baitzen *Garapen Jasangarrirako eta Elkartasun Globalerako Lankidetzari buruzko otsailaren 20ko 1/2023 Legea* onartuta eta hurrengo urtean esparru berri horretan lehen Plan Zuzentzailea eginda; eta Garapenerako Finantziazioari buruzko IV. Biltzarrera, 2025ean Sevillan egin zena.

Lehen prozesuari dagokionez, txostenean ohartarazten da ez dela aitortzen espainiar lankidetzan dagoen herentzia koloniala, eta horrek espainiar lankidetzaren logika neokolonial tradizional batzuk errepikatzeko arriskua sortuko luke. Txostenaren arabera, IV. Plan Zuzentzaileari buruz Lankidetz Kontseiluak eman zuen irizpena oinarri izanik, erreforma-une honetan hain justu lankidetz-eredua sakon eraldatzen has daiteke Espainia, eredu hori ez dadin itsua izan Espainiak desparekotasun globalari egiten dion ekarpenarekiko, baizik eta horri konponbidea emateko mekanismoa izan dadin.

Ildo horretatik, bereziki argigarria da txosteneko 5. grafikoa³, GLOrako % 0,7ko konpromisoaren eta benetan emandako laguntzaren artean Espainiak duen alde historikoa erakusten duena: datu horien arabera, XXI. mendean bizi izan ditugun 25 urteetan, Espainiak urtean 5.380 milioiko zorra pilatu du hegoaldeko herriekiko (emateari utzi zaionaren ikuspegitik soilik).

Hain zuzen ere, garapenaren finantziazioaren gaia da txostenaren hirugarren kapituluko gai nagusia, 2025eko uztailan Sevillan egindako Garapenerako Finantziazioari buruzko Nazioarteko Biltzarrarekin (FfD4) lotuta. Ikuspegi dekolonial batetik, goi-bilera horrek ekonomia globalaren finantza-mekanismoen eraldaketa planteatu behar zuen, 3 ardatzen inguruan antola daitekeena: fiskalitatea bere alderdi guztietan, desparekotasun globalaren lizunkeria jarritz garapen jasangarriarekin bateraezina den faktore moduan; ekonomiaren gobernantza globalaren demokratizazioa; eta aberastasun-adierazleak (BPG, esaterako) garapen-prozesuaren konplexutasuna ulertzeko baliagarri gisa zalantzan jartzea.

Azken batean, ereduaren politizazio bat izango litzateke, arazoa teknikoa ez dela, baizik eta batez ere politikoa dela aitortzen duena. Sistemako eragile boteretsuenak (multinazionalak eta finantza-botere globaleko guneak) zalantzan jarritz bakarrik orekatu daitezke harreman ekonomiko globalak. Edo beste era batera esanda: iparralde globalaren eraldaketa sakon batetik soilik planteatu daiteke gizateria osoaren arazo sozial, politiko, ekologiko eta ekonomikoei konponbidea ematea.

Lankidetz «iparralde berri» baten bila

Funtsean, garapenaren komunitatearen zati handi batek duela urte batzuetatik bizi duen larritasun-eta paralisi-egoeratik irteteko zenbait bide erakutsi nahi ditu txostenak. Larritasun hori areagotu baino ez da egin txostena argitaratu zenetik gaur arte igaro diren sei hilabeteetan. Ameriketako Estatu Batuetako Gobernuak mozorro politikoak alde batera uztea erabaki du, buru den elitearen interesak lortzeko modurik gordin eta bortitzenean. Inmanuel Wallersteinek bere bizitzako azken urteetan aipatu

3. 28. orrialdea.

zuen trantsizioa azkartzen ari da, eta ez dirudi munduaren erdigune inperiala (Washington) prest dagoenik bere gainbehera igarotzeko planeta osoan pobrezia, indarkeria eta beldurra zabaldu gabe.

Testuinguru horretan, jada ez dauka zentzurik garapenerako lankidetza duela 20 edo 30 urte bezala pentsatzeak. Ezta 2030 Agenda onartu zenean bezala pentsatzeak ere. Hemen eta orain lankidetza defendatzeak izan dezakeen zentzu bakarra da lankidetza horrek gure gizarteetako indarkeria eta beldurra geldiarazten laguntzea. Gizateriarentzako arrisku nagusia mendealdeko klase ertain izutua da, planeta agortzeko eta etorkizunarekin amaitzeko prest dagoena beste pare bat hamarkadatan zentzurik gabe kontsumitzen jarraitzearen truke. Horrek elikatzen du Trump AEBn eta ultraeskuina hemen.

Horren aurrean, mundua ikusteko eta bertan bizitzeko dugun moduaren deskolonizazioa defendatzeko unea da. Lan egiteko unea da, gero eta pertsona gehiagok imajinatu ahal izan ditzaten beste bizimodu posible, beharrezko eta hobeago batzuk. Hori da, hain justu, garai historiko honetan era batera edo bestera «lankidetzaren» arloan lan egiten dugun pertsonon egiteko politiko nagusia. ■

Ameriketako Estatu Batuetako Gobernuak mozorro politikoak alde batera uztea erabaki du, buru den elitearen interesak lortzeko modurik gordin eta bortitzenean. Inmanuel Wallersteinek bere bizitzako azken urteetan aipatu zuen trantsizioa azkartzen ari da, eta ez dirudi munduaren erdigune inperiala (Washington) prest dagoenik bere gainbehera igarotzeko planeta osoan pobrezia, indarkeria eta beldurra zabaldu gabe.

BIBLIOGRAFIA

- ActionAid International (2025). *Who Owes Who? External debts, climate debts and reparations in the Jubilee year*. <https://actionaid.org/sites/default/files/publications/FINAL%20Who%20Owes%20Who%20-%20FINAL%20COPY%20FOR%20WEBSITE%20-%205th%20Feb%202025.pdf>
- Arimbi Wahono (2025). *Rights-based tax justice: A framework for a progressive, feminist, ecologically just, and decolonial approach to taxation*. WEDO; Financial Transparency Coalition; Center for Economic and Social Rights (CESR); Shared Planet.
- Debt Justice (2024). *Debt payments for climate vulnerable countries hit highest level since at least 1990*. https://debtjustice.org.uk/wp-content/uploads/2024/05/Debt-payments-climate-vulnerable-countries_06.24.pdf
- Daniela Gabor (2025, 8 de julio). «Dispatch from Seville: Fracturing multilateralism at the Fourth International Conference on Financing for Development». *Phenomenal World*. <https://www.phenomenalworld.org/analysis/dispatch-from-seville/>
- Emilia Dempsey et al. (2024). *Exportando la extinción: Cómo el sistema financiero internacional limita el futuro de la biodiversidad*. The Centre for Climate Justice; Climate and Community Project; Third World Network. <https://climatejustice.ubc.ca/wp-content/uploads/sites/45/2024/07/Exporting-extinction-SP.pdf>
- ESCR-Net (2025). *Financing Our Right to the Future: FfD4 must center people, planet and human rights*. <https://www.escri-net.org/resources/financing-our-right-to-the-future-ffd4-must-center-people-planet-and-human-rights/>
- Grace Arina (2025). *Feminist reflections on the Fourth International Conference on Financing for Development*. <https://menafemmovement.org/feminist-reflections-on-the-fourth-international-conference-on-financing-for-development/>
- Iolanda Fresnillo et al. (2024). *Convención marco de las Naciones Unidas sobre la deuda soberana: Construir una nueva arquitectura de la deuda para la justicia económica*. European Network on Debt and Development (Eurodad). https://assets.nationbuilder.com/eurodad/pages/4688/attachments/original/1729260440/04_debt-architecture-briefing-ES-oct18.pdf
- Kudzai Mataba eta Elisângela Rita 2025, otsailak 14). *UN Convention on Tax: What happened at recent negotiations, and what's next? International Institute for Sustainable Development (IISD)*. <https://www.iisd.org/articles/explainer/united-nations-international-tax-convention-negotiations>
- Garapenerako Erakundeen koordinatzailea. (2025). *Financiación justa para un futuro de esperanza: Informe INDICO 2025*. <https://www.indicedecoherencia.org/wp-content/uploads/2025/06/Informe-INDICO-2025.pdf>
- Mark Bou Mansour et al. (2024). *Estado de la justicia fiscal 2024. Tax Justice Network*. <https://taxjustice.net/wp-content/uploads/2024/11/State-of-Tax-Justice-2024-Spanish-Tax-Justice-Network.pdf>
- Nazio Batuak (2025). *Compromiso de Sevilla. A/CONF.227/2025/L.1*. <https://docs.un.org/es/A/CONF.227/2025/L.1>
- Sheleen Talaat y Katie Tobin (2025, 12 de agosto). *Las feministas confrontan la injusticia financiera en FFD4*. Menafemmovement.org. <https://menafemmovement.org/feminists-confront-financing-injustice-at-ffd4/>
- UNCTAD (2025). *Un mundo endeudado*. <https://unctad.org/es/publication/un-mundo-endeudado>
- WEDO (2024). *Five Dimensions of Feminist Climate Finance*. https://wedo.org/wp-content/uploads/2024/11/WEDO_FeministClimateFinance_2024.pdf

■ WEBGUNEAK

- Garapenerako Finantziazioari buruzko Nazioarteko IV. Biltzarra.
<https://financing.desa.un.org/es/ffd4>
- Bretton Woods Project.
<https://www.brettonwoodsproject.org/>
- Center for Economic and Social Rights (CESR).
<https://www.cesr.org/>
- Centre for Research on Multinational Corporations (SOMO).
<https://www.somo.nl/>
- Futuro en Común.
<https://futuroencomun.net/>
- Garapenerako Erakundeen koordinatzailea.
<https://coordinadoraongd.org>
- Garapenerako Gizarte Zibila Finantzatzeko Mekanismoa.
<https://csoforffd.org/>
- Observatori del Deute en la Globalització (ODG).
<https://odg.cat/es/>
- Tax Justice Network.
<https://taxjustice.net/>
- The European Network on Debt and Development (Eurodad).
<https://www.eurodad.org/>
- Transnational Institute (TNI).
<https://www.tni.org/es>
- Women's Environment & Development Organization (WEDO).
<https://wedo.org/>

1. dosierra: [«Garai berriak garapenaren nazioarteko lankidetzarako»](#), 2011ko apirila.
2. dosierra: [«Mundua kontsumotik aldatzea?»](#), 2011ko uztaila.
3. dosierra: [«Itzalak mikrofinantzetan»](#), 2011ko urria.
4. dosierra: [«EGE krisiaren aurrean»](#), 2012ko urtarrila.
5. dosierra: [«Garapenerako lankidetzakrisi-garaian. Eragile berriak, helburu berriak»](#), 2012ko apirila.
6. dosierra: [«Krisia, herritarren haserrea eta gizarte-mugimenduak»](#), 2012ko uztaila.
7. dosierra: [«Beste politika ekonomiko bat posible al da?»](#), 2012ko urria.
8. dosierra: [«Banku etikoa posible al da?»](#), 2013ko urtarrila.
9. dosierra: [«Desberdintasuna eta gizarte-kohesioaren haustura»](#), 2013ko apirila.
10. dosierra: [«Elikagaien segurtasuna: Eskubidea eta beharra»](#), 2013ko uztaila.
11. dosierra: [«2015 ondoko garapen-agenda: Lehengo bidetik edo trantsizioaren hasiera?»](#), 2013ko urria.
12. dosierra: [«Ekonomia lankidetzan»](#), 2014ko urtarrila.
13. dosierra: [«Beste ekonomia bat abian dag»](#), 2014ko udaberria.
14. dosierra: [«GEK: Erretorika gainditzeko»](#), 2014ko uda.
15. dosierra: [«Ekonomiaren irakaskuntza»](#), 2014ko udazkena.
16. dosierra: [«Prokomuna eta ondasun erkideak»](#), 2015eko negua.
17. dosierra: [«Garapenaren finantzazioa eta 2015 ondoko Agenda»](#), 2015eko udaberria.
18. dosierra: [«Beste ekonomia bat abian dago \(II. jardunaldiak\)»](#), 2015eko uda.
19. dosierra: [«Gizarte-bazterketak»](#), 2015ko udazkena.
20. dosierra: [«Zerga-sistema: efizientzia eta ekitatea»](#), 2016eko negua.
21. dosierra: [«José Luis Sampedro gogoan»](#), 2016 2015eko udaberria.
22. dosierra: [«Beste ekonomia bat abian dago \(III. jardunaldiak\)»](#), 2016eko uda.
23. dosierra: [«Ongi bizitzea, gizartearen paradigma alternatibo gisa»](#), otoño 2016ko udazkena.
24. dosierra: [«Energia. Erronkak eta arazoak»](#), 2017ko abendua.
25. dosierra: [«Genero-ikuspegia ekonomia sozial eta solidarioan»](#), 2017ko udaberria.
26. dosierra: [«Gure gizarte- eta ekonomia-ereduari buruz berriro pentsatzen»](#), 2017ko uda.
27. dosierra: [«Inpaktuko inbertsioa»](#), 2017ko udazkena.
28. dosierra: [«Globalizazioaren gobernu»](#), 2018ko negua.
29. dosierra: [«Ekonomia feminista: ikusezina ikusgai egiten»](#), 2018ko udaberria.
30. dosierra: [«Begirada kritikoak eta zeharkakoak»](#), 2018ko uda.
31. dosierra: [«Ekonomia Sozial eta Solidarioa sustatzeko praktikak eta tresnak: partekatutako gogoeta bat»](#), 2018ko udazkena.



32. dosierra: [«Enpresako Demokrazia Aldarrikatzen»](#), 2019ko negua.
33. dosierra: [«Elikaduraren etorkizuna munduan»](#), 2019ko udaberria.
34. dosierra: [«2030 Agenda: gatopardismoa edo transformazioak»](#), 2019ko uda.
35. dosierra: [«Gizarte erantzukizun korporatiboa Elikagaien industrian»](#), 2019ko udazkena.
36. dosierra: [«Demografia: aldaketak ugalketa-ereduan»](#), 2020ko negua.
37. dosierra: [«Ekonomia zirkularra: aukera burutsua»](#), 2020ko udaberria.
38. dosierra: [«Funtsezko ekonomia: Herritarren ongizateari laguntzen»](#), 2020ko uda.
39. dosierra: [«Ekonomiaren Oligopolizazioa»](#), 2020ko udazkena.
40. dosierra: [«Espainako ekonomiaren ekoizpen-eredua berrantolatze bidean»](#), 2021ko negua.
41. dosierra: [«Garapena» Neurtu \(Eta Ulertzeko\) Beste Modu Batzuk»](#), 2021ko udaberria.
42. dosierra: [«Gizarte digitala, itxaropenak berreraikitzen»](#), 2021ko uda.
43. dosierra: [«Europa, pandemia eta krisi ekonomikoa»](#), 2021eko udazkena.
44. dosierra: [«Covid-19: ondorio sozial eta politikoak eta erantzuteko politikak»](#), 2022ko negua.
45. dosierra: [«Finantza Jasangarriak: Inbertsioaren Paradigma Berria?»](#), 2022ko udaberria.
46. dosierra: [«Unibertsitate aurreko hezkuntzari erronka jarri nahian: irakaskuntzako bestelako praktika batzuk bestelako ekonomia baterako»](#), 2022ko uda.
47. dosierra: [«2030 Agenda eta Ezinbesteko Paradigma-Aldaketa Unibertsitatean»](#), 2022ko udazkena.
48. dosierra: [«Enpresa-Eredu Berriak Eta Demokrazia Ekonomikoa»](#), 2023ko negua.
49. dosierra: [«Finantza-sistemaren digitalizazioaren erronkak»](#), 2023ko udaberria.
50. dosierra: [«Ekonomia espainiarra bidegurutze kritikoan»](#), 2023ko uda.
51. dosierra: [«Ekonomiaren eraldaketa digitala: lanean dituen eraginak»](#), 2023ko udazkena.
52. dosierra: [«Bidezko Trantsizio Ekosoziala»](#), 2024ko negua.
53. dosierra: [«Zilarrezko ekonomiari buruzko ikuspegi kritikoa»](#), 2024ko udaberria.
54. dosierra: [«Ekintzailetzaren egungo erronketarako estrategiak, aliantzak eta irtenbide kolektiboak, ekonomia sozial eta solidarioan»](#), 2024ko uda.
55. dosierra: [«Etxebizitza bat eta hiri bat izateko eskubidea: panoramika bat»](#), 2024ko udazkena.
56. dosierra: [«Nekazaritzaren eta landa munduaren etorkizuna»](#), 2025eko negua.
57. dosierra: [«Gerrako ekonomia»](#), 2025eko udaberria.
58. dosierra: [«Turismoa bidegurutzean: Dilema globalak eta tokiko erantzunak»](#), 2025eko uda.
59. dosierra: [«Europar batasunaren erronka existentziala»](#), 2025eko udazkena.





Laguntzailea



Mugarik gabeko Ekonomialariak
c/ Gaztambide, 50 (sarrera SETEMen
lokaletik barrena)
28015 • Madril
Tel.: 91 549 72 79
ecosfron@ecosfron.org

Mugarik gabeko Ekonomialariak Euskadi
EKONOPOLo, Harrobi Plaza, 4,
48005 Bilbo, Bizkaia
Tel.: 722 371 633
ecosfron.euskadi@ecosfron.org